


noaua



"ZAPATILAK JANTZI ETA EDOZEIN JARDUERA FISIKO EGITERA ANIMATU NAHI DITUGU USURBILGO EMAKUMEAK"

Udaleko Kirol eta Parekidetasun sailak 'Elkarrekin Eguna' antolatu du / 08

ARGAZKIA: NOAUA



USURBIL.EUS

Trafikoa mugatzeko sistema berria probatzen hasi dira Kalezarren / 05



NOAUA

Joan den asteburuko haizeteak kalte ugari eragin zituen / 09




NOAUA

Erle Eguna larunbat honetan ospatuko da, eta Udazkeneko Azoka igandean / 10



BEA EGIZABAL

Bea Egizabal Zubietako elizan arituko da igande arratsaldean / 26



FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE...ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es



ANDATZA TABERNA

*Irekiera
berria!*

**EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK**

Ostegunetan

Pintxo pote!

8:00-20:30 Asteleheneretik - Asteazkenera **BAZKARIAK**

8:00-23:00 Ostegunetik - Igandera **BAZKARI eta AFARIAK**

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027

BAZKIDEEN TXOKOA



**ERRIGORAKO PRODUKTUEN
2 SASKI
ZOKKETATUKO DITUGU
NOAUA!ko BAZKIDEEN
ARTEAN**



Gorria

Ardo apartsua Rosé
Ardo beltza krintantza
Ardo txuria · Patxarana
Mantekadak · Polborioak
Txokolatzeko molineroak
Zainzuriak · Turroia
Piperrak · Ardi-gazta

Berdea

Piperrak · Zainzuriak
Orburuak · Txixiriok
Pasta · Dilista lehorrak
Ardo-ozpina · Tomate frijitua
Sagar zukua · Konbutxa tea
Txokopipitak · Teila eko
Haritz ardo beltza

eko



Bazkide egiten bazara zokketa honetan Parte hartzeko aukera izango duzu - 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

"Ez gaituzue izutuko, guk autodefentsa feminista!", azaroaren 25eko mobilizazioko aldarria

Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunez, Kafe Tertuliak eta Emakumeon Etxeak aste hasieran Mikel Laboa plazan deitutako elkarretaratzean bildu ziren, "ez gaituzue izutuko, guk autodefentsa feminista!" aldarripean. "Indarkeria matxista sostengatzen duen egiturazko sistema zishetero-patriarkal kapitalistak" hiltzen jarraitzen duela gogorazi zuten. Aurtengo azaroaren 25eko elkarretaratzean salatu zuten, "erasoen aurreko kontakizunetan ardura gure gain ezartzen zaigu" eta "izua

erabiltzen dute gure bizitzak kontrolatu eta menderatzeko. Arriskua, diziplantzeko. Erruduntasuna, erantzukizuna bandoz aldatzeko".

Horren aurrean, plazaraturiko manifestuarekin adierazi nahi izan zuten, autodefentsa feministaren bidez "argi esatera gatoz, izua bandoz aldatuko dugu, ez gaituzue izutuko". Argi utzi nahi izan zuten, "errelato patriarkalei, salaketa feminista egingo diegu. Izua menderakuntzaren saiakerari, boteretze kolektibo".



Azaroaren 25ean Mikel Laboa plazan eginiko elkarretaratzea.

Garbigune mugikorra, Usurbilgo erdigunean

Azaroaren 28tik aurrera, garbigune mugikorra Usurbilgo erdigunean. Era honetan, etxeko hondakinen berrera-bilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Abenduaren 5ean osteguna, garbigune mugikorra Aginagara eramango dute.

1959an jaiotakoen bazkaria, Atxega jauregian

1959an jaiotakoen bazkaria larunbat honetan ospatuko da. Atxega jauregian elkartuko dira.

Otordurako izena emateko aukera hala ere, bezperara arte egongo da zabalik. Horretarako telefono zenbaki honetara deitu behar da: 659 139 073 (Eli).

KzGunea arratsalde zabalduko dute abenduan

KzGunean ikastaro hauek iragarri dituzte abenduaren hasierarako:

- Abenduak 2-12, 16:00-18:00 "Eman lehenengo pausoak argazki ukituan GIMPEkin".
- Abenduak 13-16, 16:00-18:00 "Google Maps".
- Abenduak 17-23, 16:00-18:00 "Mekanografia. Ikasi hutsetik".

'Goazen kalera' ibilaldi osasuntsua, Usurbilgo erdigunean

Asteartero, Usurbilgo herri eta auzoetan paseotxo osasuntsuak egiteko aukera dago. Amaieran, Lanbide Heziketako ikasleek eginiko hamaiketako banatzen dute parte hartzaileen artean. Abenduaren 10ean Usurbilgo erdigunean egingo da. 10:30ean batuko dira, frontoian.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala



LUIS ARANALDE

Ametsa amesgaizto bihurtzeko arriskuan?

Filadelfiako hiria, non duela 248 urte jaio zen Amerikako Estatu Batuetako demokrazia, azaroaren 6an antsika eta begirada tristez esnatu zen. Bertan, %80ak Kamala Harrisi botatu zion. Baina abantaila zabal hori ez zen nahikoa izan Donald Trumpen garaipena oztotatzeko Pentsylvaniako estatu erabakigarrian, ezta ere bere itzultzea Etxe Zurira.

Trumpen garaipenak, aditu askoren ustez, Estatu Batuek eskuinera jo duela islatzen du eta onartzen duela baita ere "irainetan, mehatxuetan eta gezurretan" oinarritutako politika egiteko era. Eta oraindik ere larriagoa agian: karrera horretan lagundu egin diote nahiz eta 34 delituzengatik kondenatua izan den eta leporatzen zaizkion beste hiru epaiketa, horietako bat Capi-
tolioari eraso egitea bultzatzea.

Aurreko ostegunean irakurtzen nion Roberto R. Aramaiori, ideia moralen eta politikoen historiagilea, Trumpen kontu hori "desinformazioaren, ezberdintasunaren eta etsipenaren garaipena izan dela. Ukrainako inbasioa berretsiko du eta baita ere Netanyahuren gerra espiral zoro hori". Eta jarraitzen du Aramaioi: "inozokeriaren inperioa dei genezaken errealitate hori eraikitzen jakin du".

Emakumearen irudia duen "askatasuna mundua argitzen" deritzan estatuari gaur malkoak



"Trumpek ezin du esan ebanjelioaren baloreen defendatzailea denik, bereak juxtu alderantzizkoak baitira".

darizkiola esan dezakegu. Herri baten askatasuna argituz, Ameriketako Estatu Batuak beti izango dira bizitza hobe baten bila portu hartara iristen ziren milioika etorkin haien sehaska. Soilki askatasunaren lurralde baten bila zebiltzan. Ziur aski ez da ez askatasunarentzat une oso egokia. Trumpen garaipenak uzten duen panoraman askatasunaren damak defendatzen dituen giza baloreen kontrakoak agertuko dira.

Besteak beste, erlijio eta etika gaiak jorratzen ditudanez foro honetan, ezin dut alde batera utzi Trumpen garaipen horretan erlijioak izan duen eragina. Bere burua erlijiosotzat

"TRUMPEN GARAIPENEAN FUNTSEZKO PAPERA JOKATU DUTE EBANJELIKO FUNDAMENTALISTA ZURIEK"

jotzen du. "Kristau protestantea naiz. Kristautasunarekin erlazio ona izan dut beti. Nire erlijioa miresgarria dela uste dut". Atentatua izan zuenean Jainkoari esker bizirik atera omen zen. Hauteskundeak irabazi baditu, Jainkoak aukeratu duelako izan omen da. Baina azaroaren 5eko hauteskundeetan lortutako garaipenean funtsezko papera jokatu dute, erabakigarria ez bada, ebanjeliko fundamentalista zuriek. Horietatik %82ak hautagai errepublikanoa babestu zuten. Beisboleko txanoen leloetan irakur zitekeen: "Jesus nire salbatzailea da", "Trump nire presidentea", "Jainkoa, armak eta Trump". Aurreko bi hauteskundeetan ere babesa eman zioten. Hori da paradoxa! Kristautasunaren perbertsiorik handiena! "Gezuraren apoteosia" deitu dio politikari batek. Nola daiteke ordea, 73 milioi pertsonak botoa berari ematea? Trumpek Nazareteko Jesusen ebanjelioaren giza baloreak bere komenentzia pertsonal eta politikorako aldatu ditu. Trump bezalako politikari arrazista, homofobo, matxista, islamofobo batek ezin du esan ebanjelioaren baloreen defendatzailea denik, bereak juxtu alderantzizkoak baitira. Amerikarren aukera guztiz errespetatzen dut, nola ez bada, baina ezin dut ulertu. Amerikarren askatasun ametsak ez ote dira amesgaizto bihurtuko?

Gabonetako sukaldaritza tailerra Santuenean

Santuenea Kultur Elkarteak antolatutako du tailerra. Larunbat honetan egingo da, azaroak 30, 16:00-19:00 artean, Santuenea 12an. "Eguberrietako aperitiboak eta hasierakoak" sukaldatuko dituzte.

Izena 5 euroren truke eman ahalko dute bazkideek, 8 euroren truke bazkide ez direnek, santueneake@gmail.com helbidean edo 621 095 644 telefono zenbakian.

Sutegi udal liburutegiko agenda

Hona hemen urte amaiera arte Sutegi udal liburutegian iragarri dituzten azken ekitaldien berri. Adi, azken asteotan eginiko eskaintzan zenbait aldaketa txertatu dituzte eta:

Abenduak 13, ostirala

• 19:00 "Etxe bat, norberarena" Yolanda Arrieta eta Peru Galbete herrikideen solasaldi poetiko musikatua.

Abenduak 23, astelehena

• 11:30 Irakurketa solasaldia 11 urtetik gorakoentzat. Roald Dahlen "Sorginak" izango dute mintzagai.

Oharra:

Ekitaldiotarako izen-ematea aurrez egin behar da. Saio horietan parte hartu nahi dutenentzat liburuak eskuragarri Sutegin bertan.



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.

Trafikoa mugatzeko sistema berria probaldian Kalezarren

Aste hasieran probatzen hastekoak ziren Kalezarren trafikoa mugatzeko Usurbilgo Udalak jarritako sistema berria, aurrerago jarriko dute behin betiko martxan.

Semaforoko argiak pizteaz gain, udalak probatu nahi du "ea kamerek, jarrita dauden bezala, matrikulak behar bezala irakurtzen dituzten, abiaduraren arabera akatsik sortzen den, eta abar. Proba fase honetan, ez da isunik jarriko: bai, ordea, sistema behin betiko martxan jarritakoan".

Udaletik eginiko inbertsioaren berri eman dute. "Matrikulak irakurtzeko sistema Dinycon enpresari erosi zaio, 14.470 euroan, eta hori udalarekin konektatu ahal izateko beste 1.120 euro inguru behar izan dira. Kopuru horie gehitu beharko zaizkie oraindik zehaztu gabe dauden seinale berrien eta hiri-altzarien aurrekontuak".

"Auzoko bizitza erosoagoa eta seguruagoa izan dadin"

Auzotarrengandik sortutako eskaria, oinezko izaera eman nahi diote Belmonteko hirigune historikoari. "Auzoko bizitza erosoagoa eta seguruagoa izan dadin adostu da neurria, bertatik pasatzeko baimena soilik bertakoek eta oinarritzko zerbitzuek izango dute sistema horren bidez; salbuespenak ere izango dira", ohartarazi du Usurbilgo Udalak.

Belmonteko hirigune historikoari oinezko izaera emateko hiru neurri hartzea erabaki du Udalak, "hirigintzan eta trafikoa esku hartze txikiak eginda herri zaintzaileago bat izateko aukeraz ohartuta". Batetik, "Felix Aizpurua plaza hiri-altzari berriekin hornituko da, tokia goxatzeko, baina baita ibilgailuen abiadura motelarazteko ere, Zumarte musika eskolaren parean, Kale Nagusian, aurrez egin bezala. Bestetik, hirigune historikoaren eremuan, garaje pribatuez gain, bi aparkaleku baimenduetan soilik aparkatu ahal izango da: beteta badaude, eremutik kanpoko aparkalekuetan utzi beharko dituzte ibilgailuak".

Hirugarrenik, trafikoa mugatzeko sistema martxan jarriko da. "Ez da barrerarik ez bestelako oztopo fisikorik jarriko: edozein ibilgailuk pasatu ahal izango du Belmonte kaletik. Horren ordez, hirigune historikoaren bi sarrera-irteeretan matrikula irakurgailu eta semaforo bana jarri da: kamerek ibilgailuen matrikulak irakurriko dituzte, eta datu-basean kontsulta eginda, unean bertan argi berdea edo gorria piztuko da, baimena duten edo ezadieraziz".



Auzotarrek eginiko eskari bat dago neurri honen oinarrian.

Horretarako, "Udalak auzotarrekin adostu du zein eremutako ibilgailuek izango duten Belmonteko hirigune historikotik pasatzeko baimena: zehazki, Kalezar auzoa kalearen hasieratik 19. zenbakira arteko etxebizitzetan erroldatutakoak izango dira. Baimendutako etxebizitzetan erroldatutako ibilgailuen zerrenda datu basean sartu da: 220 ibilgailu inguru dira baimenduak. Horrez gain, oinarritzko zerbitzuek zein larrialdi zerbitzuek (suhiltzaileak, ambulanzak edo udal "zerbitzuek") ere pasatzeko baimena izango dute".

"UDALAK AUZOTARREKIN ADOSTU DU NORTZUK IZANGO DUTEN IGAROTZEKO BAIMENA"

"Salbuespeneko baimenak ere emango dira"

Horiez gain, "salbuespeneko baimenak ere emango dira, baina kasu horietan, espresuki egin beharko dute eskaera udalean, arrazoiak azalduz, abenduaren 2tik 20ra bitartean. Goizez, udaleko harreraren eskatu ahal izango da, eta ezin duenak arratsaldean Udaltzaingorearen bidez eskatzeko aukera izango du".

Kalezarko kasuaren harira, 2001etik indarrean den "trafikoa, motordun ibilgailuen zirkulazioa eta bide segurtasuna arautuko dituen ordenantza eguneratzeari" ekin diola berri eman du Udalak. Udalaren aurreikuspenen arabera, "abenduko osoko bilkuran onartuko da ordenantza, eta otsaila baino lehenago ez da espero indarrean sartzea, erabakia GAOn argitaratu eta jendaurrean jarri beharko baita, alegazioetarako".

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ANDATZA TABERNA

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00-20:30 Astelehenerdik - Asteazkenera
8:00-23:00 Ostegunetik - Igandera

Kalezar Auzoa 12, 08, USURBIL. Tel 943 73 20 27

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL



Eider Arsuaga herritarra, motxila prestatu berritan, Pole Danceko klasera joateko prest.

"Pole Dance egiten dugunok ez dugu sexualizatzen; estetikari erreparatzen diogu"

EIDER ARSUAGA URKIA 'POLE DANCE' DANTZARIA

Barra batean hankaz gora eta bueltaka aurkitu dugu Eider Arsuaga usurbildarra Pole Studio Donostian. Hain ezaguna ez den eta cliché betetako Pole Dance egiten du duela bizpahiru urtetik. Inoizko kirolik kuttunena eta dibertigarrienentzat du.

Nolatan erabaki zenuen Pole Dance egiten hastea?

Instagramen ikusi nuen lagun bat Pole Dance egiten hasi zela. Sarritan igotzen zituen bideoak akrobaziak egiten eta atentzioa eman zidan. Nik txikitatik gimnasia erritmikoa eta akrobaziak egin izan ditut eta antzeko diziplina iruditu zitzaidan. Proba klase bat egitera animatu nintzen segituan.

Denbora eta energia asko eskaintzen diozu Pole Danceari?

Estudioan ordutegi oso malguta dute. Badakite jende askorentzat ez dela erraza lana eta kirola uztartzea, eta beraz, mugikorreko aplikazio baten bidez aukera mordo bat dauz-

kagu gure mailako klaseak jasotzeko. Ni, orain, astean bitan joaten naiz. Hasi nintzenez, gorpuzka ohitzen joateko behin bakarrik joaten nintzen, eta gerora erabaki nuen bitan joaten hastea. Ikasten eta lanean ari naiz eta, hala ere, estudioan daukaten plangintzarekin dena uztartzeko ondo moldatzen naiz. Larunbat goizetan ere klasea egoten da.

Mailak aipatu dituzu. Zein maila daude?

Hiru maila nagusi bereizten dira: Pole 1, 2 eta 3. Denok ez daukagu erritmo bera eta bakoitzaren indibidualtasuna errespetatzeko tarteko maila

bat ere badago: Pole 1-2. Pole 1 mailako klaseetan hasi behar izaten da, eta monitoreak hobeak nabari duenean, animatu egiten gaitu mailaz igotzera.

Txapelketak izaten dira?

Niretzat hobby bat da eta ondo pasatzeko egiten dut. Indarra

"INDARRA LORTZEKO EKINTZA BAT DA; EZ ZAIT GIMNASIORA JOATEA BATERE GUSTATZEN"

lortzeko egiten dudak ekintza bat da, ez baitzait gimnasia batera gustatzen. Nik inoiz parte hartu ez badut ere, badaude txapelketak. Madril eta Bartzelonan Espainiako txapelketak egiten dira eta nazioarteko txapelketak ere badaude. Ez da oso kirol ezaguna, baina eskatzen duen esfortzu fisikoa eta diziplina kontuan hartuta, kirol olimpi-ko izan behar lukeela iruditzen zait. Hala, ikusgarritasun gehiago emango litzaioke.

Zenbat denbora behar da figurak ondo egiteko?

Pixkanaka sentitzen duzu indarra hartzen ari zarela eta ispiluan ere aldaketa fisikoak nabari dira. Besoak eta bizkarra ikaragarri lantzen dira. Horrez gain, indarra eta malgutasuna lortzeko klaseak izaten ditugu Pole Danceko klaseez gain. Uneoro igo eta jaitsi egin behar dugu barratik eta figura batzuk egin, eta horretarako ezinbestekoa da indarra. Malgutasuna ere beharrezkoa da figurak ahalik eta politenak izan daitezen. Horretarako, gorpuzaren jarrerara ere garrantzitsua da eta gorpuz-adarrak zuzen-zuzen izatea ere bai. Konstantzia eskatzen du eta diziplina. Ezin da hilabete batzuetan utzi, bestela maila galtzen da. Gehienak lehenago baletean, gimnasia erritmikoa edota akrobazian aritutakoak izaten dira, baina badaude zerotik hasten direnak ere.

Jendeak gauarekin eta diskotekin lotuko du, bai eta arropa gutxirekin ere.

Oso sexualizatuta dago. Gizaratearen iruditerian diskoteketan eta streaptease klubetan egiten den jardura bat baino ez da. Erdi biluzik eta dantza erotikoa egiten dituzten neskak. Hori ez da horrela; akrobaziak egitean oinarritzen da. Ez gara ezer sexualizatzen ahalegintzen; estetikari erreparatzen diogu. Pole Dancean neska batek espagat bat egiten

→ duenean, sexuarekin lotzen du jendeak, baina gimnasia erritmikoa ikustean berriz, ez. Biak ikustean egiten dutena oso polita dela pentsatzen dut, ez sexya denik. Arropa faltaren kontuak ere badu azalpena. Gu barrara gorputzeko haragiarekin heltzen gara, beraz, gorputz adar guztiak arroparekin estaliko bagenu, irristatu egingo ginateke.

Kirol gogorra dirudi.

Haragiarekin eta hezurren kontaktuarekin heltzen gara barrara eta horrek min egiten du. Frikzio horren eraginez, ubeldu handiak ateratzen zaizkigu eta erredurak ere sortzen dira. Azalak gorri-gorri bukatzen du saioaren ondoren, eta egun gutxira ubelduz josten gara. Giharretako mina ere oso ohikoa izaten da figurak sortzeko egiten dugun indarragatik. Oso kirol polita da praktikatzeko eta azkenean, indarra lortzeko modu dibertigarri eta bikaina da, eta malgutasuna lantzeko ezin hobea. Esfortzuak mezezi du erabat.

Entrenatzaileak garrantzitsuak dira?

Denbora batez Pole utzi behar izan nuen lanagatik. Egia da momentu hartan barra bat etxean izatea ikaragarri ona izango zela. Ikasitakoa ez galtzeko oso ondo etorriko zitzaidan modu autodidaktan aurrrera egiteko. Jendeak badauka barra etxean. Hala ere, uste dut askoz gomendagarriagoa dela monitore batek erakutsita hastea, eta gerora, ikasitako figurak etxean praktikatzea.

Beste kirol batzuetan arituko zinen txikitan.



Eider Arsuaga 'Gemini' izeneko figuraren aldaera mota bat egiten.

23 urte ditut, eta betidanik kirol artistiko eta akrobatikoak egin ditut. 4-5 urterekin gimnasia erritmikoa hasi nintzen nire ahizparen pausoak jarraituz, eta 18 urte arte aritu nintzen unibertsitatean hasi arte. Gerora, dantzan aritu nintzen hip-hopean eta abar, baina taldeak sortzeko zailtasunak izaten genituen urtero. Beraz, Pole Dancean hasi nintzen eta hipika ere egiten dut.

Zer ari zara ikasten?

Laborategi batean nabil lanean eta espezializazio bat ikasten. Anbulantzietako teknikoak ere banaiz.

Etorkizunean, kirolari lotuta ikusten duzu zeure burua?

Oso garrantzitsua iruditzen zait kirola egitea adin guztietan. Lanagatik badakit zein garrantzitsua den kirola osasuntsu egoteko. Egunen batean ezingo dut Pole egin, baina beti saiatuko naiz ariketa fisikoa egiten. Aurten estudioan bi emakume sartu dira 40 urte baino gehiago dituztenak, eta beraz, luzerako daukat nik ere.

"GORPUTZ ADAR GUZTIAK ARROPAREKIN ESTALITA, IRRISTATU EGINGO GINATEKE"

Laburrean

Zenbaki bat:
4.

Kolore bat:
Beltza.

Miresten duzun kirolari/entrenatzaile bat:
Francesca Nappo.

Gustuko duzun Pole Dance estudio bat hauta ezazu:
Pole Studio, Donostiakoa.

Ikusi duzun azken pelikula edo telesaila:
Interestelar (Intertellar, Christopher Nolan, 2014).

Liburu bat aholkatuko diguzu?
El nombre del viento (The name of the wind, Patrick Rothfuss).

Zein da zure abeslaririk gogokoena?
Christina Aguilera.

Zein da gehien jarraitzen duzu sare soziala?
Instagram.

Usurbilgo txoko bat aukera ezazu.
Plaza.

Santixabelak ala Sargardo Eguna?
Santixabelak.

Oporretarako toki bat.
Norvegia.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Elkarrekin Eguna, emakumeak jarduera fisikora erakartzeko

Usurbilgo emakumeen batasuna aldarrikatuko duen goiza antolatu dute udal kirol eta parekidetasun sailek azaroaren 30erako.



"Ekimen honekin emakumeen batasuna eta komunitatea landu nahiko genituzke".

"Elkarrekin leloa aukeratu dugu. Kontzeptu hori bera, ekintza eta komunitatea barnebiltzen dituelako aproposa iruditu zaigu", azaldu zuen Ainhoa Arrozpide Landa zinegotziak iragan astean eginko aurkezpen agerraldian. Zehaztu zuenez, "elkarrekin dena errazagoa da eta programa honen bidez, Usurbilgo emakumeen batasuna eta komunitatea landu nahiko genituzke, zapatilak jantzi eta edozein jarduera fisiko egitera animatuz".

Lelo hau ez dute soilik azaroaren 30eko hitzordura begira sortu, iraunkorra izango da aldarri hori. "Aurten ez-ezik, datozen urteetan ere emakumeak jarduera fisikoa egitera bultzatzeko antolatzen diren ekimenetan ere lelo horixe bera erabiliko dugu, kamisetetan ikusten den moduan".

Bi hitzordu

Aurten, hilaren 30ean Oiardo kiroldegian egingo den Elkarrekin Eguna aurretik, antolatu izan dute ildo honetatik ekimenik. "2022an, adibidez, zoru pelbikoaren ikastaroa" antolatu zuten; "harrera ona izan zuen, oso ona esango nuke", Arrozpideren esanetan,

"eta gaur egun, hori bera Emakumeon Etxearen bidez eskaintzen da. Iaz ere entrenamendu funtzional saioa egin zen Mikel Laboa plazan, Foru Aldundiak bultzatutako Emakumeak Mugimenduan kanpainarekin bat eginda".

Aurten, aipatu moduan, Oiardo kiroldegia hautatu dute Elkarrekin Eguna bideratzeko. Azaroaren 30ean izango da, goiz partean. Bi ekintza antolatu dituzte; hasteko, MOOV gimnasioaren laguntzarekin bideratuko den emakumeentzako entrenamendu funtzionala, maila guztiei zuzenduriko saioa izango dena. Segidan, Andoni Zubeldia herrikide nutrizionistak hamaiketako osasungarriari buruzko tailerra eskainiko du. Jarduera fisikoari eta emakumeari lotutako bideraturiko elikadurari buruzko hainbat aholku emateaz gain, hamaiketako osasungarri desberdinak prestatu eta dastatuko dituzte gero.

Hitzordurako izena egitarauan, galdetegia osatuta eman ahalko da, azaroaren 29ra arte. Parte hartzaile bakoitzak ondoko argazkiko kamiseta bat jasoko du oroigarri gisa, aurrerago egingo den ekimenetarako erabili ahalko duena.

Izan ere, Libana Taboada kirol arloko udal teknikariak aurreko asteko agerraldian berri eman zuenez, "datozen urteetan programa honi jarraitpena eman nahiko genioke, ekintza desberdinak antolatuz udal parekidetasun eta kirol sailek. Aurreikusia dago ikastaroak, hitzaldiak, tailerrak eta modu desberdinetako jarduerak desberdinen bidez dinamizatzea programa hau".

Elkarrekin Eguna

Azaroak 30, larunbata

Oiardo kiroldegian:

10:00 MOOV gimnasioak gidatutako entrenamendu funtzionala.

11:00 Andoni Zubeldia herrikide nutrizionistaren tailerra: emakumeari eta jarduera fisikoari zuzenduriko elikadurari buruzko pautak, hamaiketako osasungarri desberdinen prestatuta eta dastatzea.

Izen-ematea: azaroaren 29ra arte, <https://forms.gle/bjFxFWcLtf8BJBM9> galdetegia beteta.

Oharra: parte hartzaileentzat argazkiko kamiseta opari. Antolatzaileak: Udaleko Kirol eta Parekidetasun Sailak.

"Ibai-Ondo Backyard" erronka

Usurbildarrei lehenatasuna eman ondoren, abenduaren 2tik aurrera izen-emate orokorra irekiko dute:

- Eguna: apirilak 12, 13.
- Hasiera: apirilaren 12an goizeko 8:00etan.
- Abiapuntua eta helmuga: Santueneko frontoia.
- Ibilbidea: Santueneko frontoia, auzoa, Atallu eta erriberako bidetik Txokoalde lotuko ditu.
- Distantzia: 6,7 kilometro.
- Izen-ematea: backyardibaiondo@gmail.com helbidean.

Informazio gehiago:

- Instagram: @ibai_ondo_backyard
- Facebook: "Ibai-ondo Backyard"

Patxi
Pantaila
barkariak EGUNERO
afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

txirriStra
TABERNA
PLATER KONBINATUAK
BOKATAK · PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Haizeteak Erle Eguna larunbatera atzerarazi du

Abisu hori eta alerta laranjaen eraginpean joan ziztaigun asteburu haizeagatik. Kalteak eragin zituen eta kaleko ekintzak bertan behera utzi beharra izatea.

Haize-bolada bortitzak izan genituen asteburuan, alerta laranja indarrean jartzearaino-koak. Igande goizaldean jo zuen gogorren haizeak eta arrasto nabaria utzi zuen. Mikel Laboa plazako ONCE-ren etxolako sabaia bere lurrera bota zuten haize-bolada gogor hauek. Atxegalden ere farola baten gainaldea txikitu zuen eta haren arrastoak airean eraman zituen haizeak.

Kalte ikusgarrienetakoa, halere, Ugartondon aurkitu genuen. Obretan duten Ugar-

te baserri ingurua hesitua dago aspaldidanik. Material astu-neko hesi zati hainbat hautsi, lurrean etzanarazi eta beste zenbait metro dezentetan eraman zituen haizeak. N634 errepideko erre bat ere itxi egin behar izan zuten Aginaga eta Usurbil artean.

Alerta laranja aktibatua izan zen igande goiz eta eguerdi partean. Testuinguru honetan, parte hartzaile, bisitari eta antolatzaileen segurtasuna lehenestearren, azaroaren 24an ospatzekoa zen 23. Erle Eguna



Azaroaren 24ko argazkia: sariak ekarri behar zituen erlea, hutsik zen plazan.

bertan behera uztea erabaki zuten bezperan Udalak eta Erle Lagunak taldeak. Larunbatera, azaroaren 30era atzeratzea erabaki dute antolatzaileek. Iganderako aurreikusitako ekimen guztiak egingo dira.

23. Erle Eguna
Azaroak 30, larunbata
09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.

11:00-14:00 Azoka, erakusketak Sutegin.

Goizean zehar, ezti dastaketa frontoian: ezti eta txokolatearekin egindako goxoak, jogurta eztiarekin banatuko da.

13:30 Euskal Herriko XXIII. Ezti, Gozogintzako eta Murrizki Lehiaketaren sariketa.

Antolatzailea: Erle Lagunak.
Laguntzailea: Usurbilgo Udala.



Ugarte baserriko hesi zatiak bota zituen haizeak.



Haizeak botatako Ugarte baserriko hesi zatiak.



ONCE-ren etxolako sabaia lurrean, haize-bolada bortitzen eraginez.



Haize-bolada bortitzen beste irudia; zuhaitzak nola etzanarazi zituen.



Hurbilagok antolaturiko azokan bertako zein kanpoko artisauak izango dira.

Udazkeneko azoka ospatuko da igandean

Hurbilagok antolatu du igandeko azoka. Herriko merkatari eta artisau batzuekin batera, "beste herrietako artisauak ere izango ditugu". Antolatzaileen esanetan, "erosketa bakoitzarekin, gaztainak eta sagardoa doan eskuratzeko aukera izango da".

Pultsera tailerra gaztetxoentzat
Hurbilagoren Udazkeneko Azoka ez da salmentara mugatuko. "Postuez gain, pultsera tailerra izango da Ziortza Gazte Elkartearen eskutik". Bide batez, 650 Usurbil Bizi-k herriko ekoizleen produktuekin egindako Gabonetako

Otarra aurkeztuko du jendarean.

Aurtengo parte-hartzaileak:

Lizardi Liburudenda, Sleepy Mimosa, Zaparra, Ione Iruretagoiena, Ameba, Xükâ Eskuz Egina, Ixabel Agirresarobe Arzallus, Amaetabiok, Bihurri, Ciaobellaido, Crea, Dilindan, EM Zirrimarra, Eskuz eskura, Esther De Donosti, Gigil, Hemendik Hara, Jukima, MUMI Handmade Jewellery, Mxuk Basque, Nai Bitxiak, Ni Naiz, Organic.Studio, Osabi Naturala, Piinpirin, R-Belde, Urluma, Haritxoa, Mimogoxo, Laupitxiak.

Abenduak 1 igandea)

- Gaztainak eta sagardoa doan, azokan erosketa bat eginda.
- 11:30-14:30 Pultsera tailerra.
- 13:00 650 Usurbil Bizi otarraren aurkezpena.
- Antolatzailea: Hurbilago.
- Laguntzaileak: Udala, Gertuago, Eusko Jaurlaritzak.

Larunbatean, Erle Eguna

Erle Eguna aurreko igandean zen ospatzeko baina haize-tearen ondorioz, bertan behera utzi behar izan zuten. Larunbat honetan egingo dela iragarri dute:

- 09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.
- 11:00-14:00 Azoka:
 - Salmenta postuak.
 - Erakusketak Sutegin: Erleak, ezti ontziratzekeo prozesua, marrazkiak, bideoak...
 - 11:00 Ezti dastaketa frontoian; ezti eta txokolatearekin egindako goxoak; jogurta eztiarekin.
 - 13:30 Sari-banaketak: Ezti, gozogintza eta marrazki lehiaketako irabazleak.



Jolasean eta kantuan plazaratuko dira Udarregi ikastolako ikasleak, abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunean.

Euskarari gorazarre egiteko astea

Abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, Euskararen Astea osatu dute herri eragile hainbatek azaroaren 30ean hasi eta hilaren 3ra arte luzatuko den ekimen zikloarekin. Ikuskizunak, kantu saioak... iragarri dituzte. Lerrootan dituzue xehetasunak.

Ate joka dugu Euskararen Nazioarteko Eguna. Abenduaren 3an izango den arren, hainbat eragileek iragarritako ekimenekin lankidetzan Euskararen Astea zikloa osatu dute. Ikuskizunak, kantuak, jolasak... tartekatuko dituzte Usurbilen, Aginagan eta Zubietan antolatutako hitzorduek, azaroaren 30etik Euskararen Nazioarteko Egunera. Segidan duzue antolatu diren ekimenen berri.

Sarreraren inguruko informazioa

Sarrerak behar dituzten hitzorduetarako txartelak, gogoan izan, agortzen ez diren artean aurrez eskuratu ahal izango dituzuela www.usurbilkultura.eus web plataforman.

Euskararen Astea

Azaroak 30, larunbata

• **12:00 Urteko azken kantu-jira Mikel Laboa plazatik.** Ez ahaztu kantu-liburuxka eramatea. Antolatzailea: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.

• **22:00 Euskararen Gala Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean.** Parte hartzaileak: Idoia Torregarai, Ander Mالبadi eta Julen Portilloren bakarrizketak, Asier Kidam magoa, Unai Gaztelumendi marrazkilaria, Zoe kontortzionista, Ines Osinaga, Apan-Rapa, SuTaGar taldeko Aitor Gorosabel & Xabi Bastida musikariak, Las Kolgadasen zirku ikuskizuna, Danna Lux, Gata al cuadrado, Euskaraldiaren herri aurkezpen eki-

taldia, fotokola, Dj Aritz&I-largi...

Sarrerak: 10 eurotan usurbilkultura.eus plataforman eta Aginagako Arraten. Antolatzaileak: Antxomolantxa KE, eta Eliza Zaharra Elkargunea.

Abenduak 1, igandea

• Egunean zehar, Mikel Laboa gogoan hil zeneko hamaseigarren urteurrenean. Bere musika entzungai omenaldi gisa bere izeneko plazan.

HAINBAT ERAGILEEK LANKIDETZAN, EUSKARAREN ASTEA ZIKLOA OSATU DUTE

• **11:30 Porrotx, Marimotots, Pupu eta Loreren "Ostirala iritsi da!"** ikuskizuna Oiardo kiroldegian. Sarrerak agortuak. Antolatzaileak: NOAUA! K.E. eta Usurbilgo Udala.

• **18:00 "Artea" antzezla-** na Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean. Aktoreak: Ramon Agirre, Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza. Sinopsia: "Artea hiru lagunen arteko komedia da. Sergiok koadro moderno bat erosi du dirutza handia ordaindu ondoren. Marcosek gorroto dio koadroari, gainera kosta egiten zaio sinistea Sergiori koadroa benetan gustatzen zaionik. Hirugarren laguna, Ibon, saiatzen da Marcos eta Sergioren arteko desadostasunean bitartekari izaten". Sarrerak: 10 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. Antolatzailea: San Praixku Guraso Elkarteak eta Eliza Zaharra Elkargunea.

• **18:00 "Gregoria", Bea Egi-** zabalen bakarrizketa Zubietako elizan. Sarrera doan. Antolatzailea: Zubietan Lan-tzen.

Abenduak 2, astelehena

• **16:10-16:45 Euskarazko liburu truke-azoka Udarregi Ikastolan.** Antolatzailea: Udarregi ikastola.

Abenduak 3, asteartea

• **Goizean zehar, haurren-**tzako jolasak herrian zehar (kiroldegian, euria balitz).

• **12:00 Euskararen goraz-**arre kantuz Mikel Laboa plazan.

• **18:00 Kantuan aritzeko aukera izango da Usurbilgo Kantu Taldearen eta Zumarteko ikasleen eskutik.** Herriko frontoitik abiatuko dira kalejiran. Kantu-paperak egunean bertan banatuko dituzte edota aurrez eskuratu ahal izango dira Potxoenean.

Antolatzaileak: Udarregi ikastola, Usurbilgo Kantu Taldea eta Zumarte Musika Eskola.



Euskaraldiaren edizio berriko 'Hamaikakoa' azaroaren hasieran aurkeztu zuten. ARGAZKIA: EUSKARALDIA.

Hamaikakoa, Euskaraldiaren enbaxadore

Konpromiso pertsonalak hartzeaz gain, Euskaraldiak behar eta sortzen duen mugimenduan eragile izango dira hamaikakoa osatzen duten kideak. Euskararen erabileran aurrerapausoak eman "eta hizkuntza portaerak aldatzera animatuko dituzte herritarrak".

Goiatz Urkijo Euskaraldiaren koordinatzailearen esanetan, Euskaraldiak hizkuntza-ohiturak aldatzeko testuingurua eskaintzen du eta testuinguru hori baliatuko duten herritarrak aktibatzea behar-beharrezkoa da. "Eta horretarako, Euskaraldia zabalduko duten pertsonak dira giltzarria. Gaur hemen bildu diren hamaika lagun hauen moduko pertsonak", gaineratu zuen Hamaikakoaren aurkezpen ekitaldi ofizialean.

Euskaraldiaren gonbitea "ilusioz eta erantzukizunez" jaso dutela adierazi zuten Hamaikako kideak. "Euskaraldian parte hartuko dugu gure burua modu kontzientean euskara gehiago erabiltzera behartze-

ko; eta enbaxadore garen aldetik, erabaki hori besteekin partekatzea, eta haiek ere parte izatera gonbidatzea, ederra iruditzen zaigu".

Euskaraldia zergatik eta zertarako egiten den azalaztea izango dute egiteko nagusien artean. "Euskaraldiaren bidez, hizkuntza portaera zehatz batzuk normalizatu nahi ditugu, arau sozial bihurtu. Portaera sinpleak itxuraz, baina oraindik ez daudenak errotuta", Euskaraldiko sustatzaileen esanetan.

Zabandu nahi diren portaerak
Lehen hitza euskaraz egitea; euskaraz ulertzen dutenekin, euskarari eustea (elkarrizketa elebidunak); eta euskaldunak,

euskaldunari, beti, euskaraz egitea. "Lehen hitzetik euskaraz eginda, edo ahal den guztietan -ulertzen gaituzten guztietan- euskara erabilia, mugitu egiten ditugu solaskideak, eta jendartera bera. Interakzio bakoitzak euskararen erabilera handitzen du, eta milaka eta milaka pertsonak batera eginda, efektu biderkatzailea lortzen dugu", azpimarratu nahi izan zuen Urkijok.

**"INTERAKZIO
BAKOITZAK
EUSKARAREN
ERABILERA
HANDITZEN DU"**

Euskaraldiko Hamaikakoa, banan bana

Euskaraldiko hamaikakoa aurkeztu zuten Bilboko Bidebarrietan kulturgunean, duela aste batzuk egindako agerraldian. Komunikazioa, kirola, musika edo sukaldaritza bezalako esparruetan aritzeagatik ezagunak diren Euskal Herriko txoko guztietako herritarrekin osatuko dute Euskaraldiaren enbaxadore taldea.

Modu pertsonalean eta euren borondatez

Euskaraldiren lehen edizioan bezala, talde anitza osatu dute. "Inoren ordezkari izan gabe, modu pertsonalean eta borondatez" ariko den taldea:

- Eneko Atxa Azurmendi, sukaldaria.
- Oihana Azkorbeitia Urizar, mendi lasterkaria.
- Aitor Bengoetxea Zabalza, musikari eta break dantzaria.
- Lutxo Egia del Rio, idazlea.
- Eneko Garcia Jaurena (Albina Stardust), trabestia.
- Ana Goitia Erkiaga, kazetaria, aurkezlea eta umoregilea.
- Itziar Ituño Martinez, aktorea.
- Roberto Moso Gil, komunikatzailea.
- Zibel Untsain Damestoy, dantzaria.
- Esti Urresola Solaguren, zinemagilea.
- Mikel Urrutikoetxea Azkueta, pilotaria.

ZER DIYO?



EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

153.640 euskaltzale eta askoz gehiago, elkar mugituz

1 53.640 pertsona dira Reale Arena, San Mames berria, Sadar, Mendizorrotza eta Jean Dauger estadioetan guztira sartzen direnak.

Ariketaz ariketa, hiru edizioetan zenbaki hori gaintitu du Euskaraldiaren izen emateak. 320.000 herritar baino gehiago gara Euskaraldian noizbait ahobizi edo belarriprest izan garenak. Hori da ekimen honen dimentsioa.

Euskararen erabilera erdian jartzen duen ariketa sozial aktibo bat izanik, indartsua, ezbairik gabe.

Kantitatea eta kalitatea, Euskaraldia sortu zenetik bi helburu horien arteko tentsioa bizi izan dugu. Jakin badakigu euskaltzale askok lehen edizioan izena eman eta hurrengotan izena eman gabe parte hartu zutela. Zenbaketa jada konplikatu zaigu. Kalitatea berriz, txapa janztean eta euskaldunak euskaldunari euskaraz egitean datza.

Ariketan jar dezagun fokoa, erabilerari hauspoa emateko funtsezkoak diren portaeretan (lehen hitza euskaraz egitea eta elkarrizketa elebidunetan murgiltzea, besteak beste). Eta, ezinbestean horretarako behar dugun herri aktibazioan ere.

Haizearen kontra gabilta, kontziente gara. Jendarte mobilizatzea gero eta zailagoa omen da. Euskaraldiak apustua igotzen du, ez baitu eskatzen ekintza puntual baten aldeotasuna edo kontrakotasuna adieraztea bakarrik. Hori eta gehiago



"Munduan ez da halako ekimenik inon eta inoiz antolatu". EUSKARALDIA.

eskatzen du: txapa jantzita, egoera ez erosoetan erabilera areagotzeko eta hizkuntza praktikak eraldatzeko jokabidea hartzea baizik. 11 egun horiek modu neketsu edo alaitsu batean bizi daitezke. Egin dezagun bigarrenaren alde, antolatu ditzagun egun horietako ekimenak poztasunarekin, jantzi ditzagun txapak konfiantzaz eta jolas dezagun hiztun zein herri gisa ahaldunduta.

Haizea kontra dugula ere sumatzen da beste hainbat egoeretan ere, hala nola, batzuk diote euskal-washing-a egiteko probesten dela, lankidetzaren publiko-soziala beti ez da erraza, hainbatetan herritarren ahaleginaren alboan erakundeen urrats ausartagoak beharko lirakeela...

Gauzak horrela, Euskaraldia antolatzeko

ahaleginak merezi ote du? Hortaz, akabo, bukatu da?

Kitto Euskaraldia betirako?

Zer tresna-bide-modu geratuko litzaziguke jendartearen masiboki hizkuntza ohituren gainean kontzientzia pizteko eta euskararen erabileran jauzi bat eragiteko?

Euskaraldia ez da perfektua eta ez da ahalguztiduna. Ez ote dizkiogu helburu handiegiak eskatzen batzuetan.

Euskaraldia behar dugu euskaldunok, euskarak eta herri honek. Inoiz baino gehiago eta inoiz baino indartsuago behar gaitu Euskaraldiak.

Gainera, aurreko hiru edizioetan egindako ikerketetan aski probatuta dago Euskaraldia ariketa eraginkorra dela. Ariketa bat baita, ez euskararen aldeko kanpaina bat. Ariketa garaian erabilera igotzen da

eta handik hiru hilabetera ere hizkuntza ohitura berriak mantentzen dira ehuneko garrantzitsu batean.

Euskaraldia indartsua behar dugu euskararen erabilera erdigunean jartzen duelako. Kontzientzia linguistikoa pizten duelako, hizkuntza ohiturak auzitan jarri. Euskaldun aktiboak ahaldunduz laguntzen duelako. Euskara ulertzen dutenak prestigiatzen eta motibatzen laguntzen duelako. Epe ertain-luzera eraginkorra delako. Nazio mailakoa eta masiboa izanik, batzen gaituen ekimena delako. Euskara agenda eta iritzi publikoaren lehen lerroan jartzen duelako.

Munduan ez da halako ekimenik inon eta inoiz antolatu. Hortaz, munduari erakutsi diezaiozun herri honetan dagoen grina, batasuna, irudimena eta indarra euskara biziberritzeko mugimenduan.

Hurrengo Euskaraldia 2025eko maiatzaren 15etik 25era izango da. Garaiz gabilta. Aukera ezin hobea dugu euskaltzaleok edizio kolosala egiteko, badaukagulako esperientzia, ausardia eta anbizioa. Antolatu gaitezen eragile guztiok, nor bere espazioan, nor bere moduan parte hartuz. Euskaraldia elkar mugituz egingo dugu!

Irati Iciar Madinabeitia,
Euskaltzaleen Topaguneko lehendakaria

Oskar Zapata Solano,
Euskaltzaleen Topaguneko Nafarroako zuzendaria.

"Hemen, herriari euskaraz"

Aztarririk herri hau eraldatzen eta euskalduntzen segitzeko "Hemen, herriari euskaraz" dinamikari ekin dio. Herriko ostalaritza guneeetan arreta euskaraz bermatzeko ahaleginean aritu dira, NOAAU!ra helarazitako idatziaren bidez berri eman dutenez.

Euskararen Nazioarteko Egunari begira, Aztarrিকা gazte mugimenduko kideek eginiko ekarpena dakarkiguru lerrootara, ohartarazi duten moduan, abenduaren 3an amaituko ez dena. Herri hau euskalduntzeko oraindik zer egin bada dela jabetuta, "hemen, herriari euskaraz" izeneko dinamika abiaraztea erabaki zuten. Ostalaritza sektorean jarri nahi izan dute arreta erronka batekin; establezimendu hauetan arreta euskaraz eskaintzen dela bermatzeko asmoz. Horren harira, dinamikaren izena, "hemen herriari euskaraz" dioten pegatinak sortu dituzte. Halakorik ikusten baduzue ostalaritza guneeetan, "bertan arreta euskaraz eskaintzeko borondatea" dutela esan nahiko du.

Hasitako bidean urrats gehiago eman asmo dituzte, herri hau eraldatzen segitzeko; "komertzio orori gonbita egiten diogu gurekin harremanetan jarri eta dinamikara atxikitzeke", berri eman dute Aztarrikatik NOAAU!ra helarazitako idatzian. Hemen duzue osorik:

Hemen, herriari euskaraz: gaztetasunetik kaleak euskalduntzen

Sarritan entzun beharizan dugu jada ez garelara hain borrokalaria eta konprometituak. Gazteok gure buruari soilik begiratzen diogula eta ez dugula zentzu komunitariorik. Sarritan esan digute konpromezu politikoari uko egiten diogula gaur egungo gazteok, ez zai-gula interesatzen.



Aztarrikaren logoa barnean hartzen duen "Guk ere herriari euskaraz" dinamikarako sortu duten irudia.

Aztarrikako gazteok aspaldi identifikatu genuen Usurbil oso herri euskalduna izan arren, hutsune batzuk ere bazituela euskara hutsean bizi daitekeen herri bat izaterako bidean. Gazteok Euskal Herria euskaldun batean kokatzen den Usurbil batekin amesten dugu. Horregatik, Euskararen Eguna gertu geneukala ikusirik, herria are euskaldunago bilakatzerako bidean, gure alea jartzen saiatzea erabaki genuen. Horrela abiatu genuen HEMEN HERRIARI EUSKARAZ dinamika.

Oraingo honetan, ostalaritzara begira jarri gara, izan ere, identifikatuta geneukan bazirela hainbat taberna, kafetegi... oraindik karta euskaraz ez

zeukatenak arrazoi ezberdientzat. Honen aurrean, horietara banan-banan joan eta dinamikaren helburuak azaldu ostean, karta jada euskaraz bazeukaten gure dinamikara atxikitzeke gonbita egin genien. Baita euskaraz eduki ez, baina euskaratzeko konpromezua hartu nahi zuten horiei ere.

"GAZTEOK EUSKAL HERRIA EUSKALDUN BATEAN KOKATZEN DEN USURBIL BATEKIN AMESTEN DUGU"

Egiari zor, taberna eta kafetegi gehienetan euskarazko karta bermatuta dagoela ikusi ahal izan dugu, eta ez zegoenetan berriz, prestutasuna adierazi digute hizkuntza dinamikak aldatzeko. Hala ere, egon da dinamikara atxikitu nahi izan ez duenik ere.

Badakizue, beraz, hemendik aurrera HEMEN HERRIARI EUSKARAZ pegatina ikusten baduzue edozein tabernetako atean, bertan arreta euskaraz eskaintzeko borondatea dutela esan nahiko du. Jakin badakigu erdiguneaz gain, ez garelara gainerako auzo eta herri guztietara ailegatu, ez eta tabernak eta kafetegiak ez diren gainerako komertzioetara ere. Baina dinamika hau ez da abenduaren 3an bukatzen, eta aurrera begira, herriko komertzio orori gonbita egiten diogu gurekin harremanetan jarri eta dinamikara atxikitzeke.

Gazteok gure herriak are euskaldunagoak izatea nahi dugula garbi daukagu. Gazte Euskaltzale Sareak abiatu duen Euskaraz Biziko Den Belau-naldia dinamikara atxikituz, Aztarrikatik urrats txikien bitartez gure herriak eraldatzen jarraitzeko daukagun konpromezua mahaigaineratu nahi izan dugu dinamika honen bitartez.

Bizitza lerratzea da, eta gu euskararen bandoan gaude.

Kontzertuak Akerran

Iluntze parte musikatua iragarri dute larunbaterako, azaroaren 30erako Akerra gaztetxean. 19:00etan hasita, Floxbin, Odolaren Mintzoa, Hysteria eta Txiskeroak taldeek parte hartuko dute. Pintxo eskaintza egongo dela ohartarazi dute antolatzaileek.



Ostegun honetako bilkuran, 2025eko udal aurrekontu proposamena eta UEMAren mozioa aztertuko dituzte, besteak beste.

"Olatu berria sortzeko unea orain da"

Ostegun honetako udalbatza plenoan, UEMAk sustatu duen mozioa defendatuko du udal gobernu taldeak. Idatzi horren arabera, "jauzi berria emateko unea da, aurrerantz egiten ez badugu atzerantz egingo dugulako".

Azaroko ostegun honekin batera elkartuko da hilero moduan, udalbatza osoko bilkuran. Besteak beste, udal gobernu taldeak landutako 2025eko udal aurrekontuak hasieraz onartu edo ez erabaki beharko dute.

Bestelako gai batzuen artean, ate joka dugun Euskararen Nazioarteko Eguna ere ahotan hartuko dute udal ordezkariak. Izan ere, Usurbilgo Udaletik helarazitako gai-zerrendaren arabera, udalerrri hau kide duen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) mozioa aurkeztu eta bozkatzekoak dira hilaren 28ko udalbatzaren osoko bilkuran. "Olatu berria sortzeko unea orain da, eta olatu horren eragile izango da Udala ere", dio testuak. Hemen duzue osorik:

Erantzukizuna eta konpromisoa, olatu berria sortzeko

Euskararen biziberritze prozesuak susperraldi egoera bizi izan du azken hamarkadetan, baina badira urte batzuk euskararen egoera bidegurutzean dagoela entzuten hasiak gara. Euskararen gaur egungo egoera zein den ulertzeko Iñaki Iurrebasoren doktore tesiak proposatutako ikuspegi berriak edota Euskaltzaindiaren gogoeta guneak ere argi erakutsi eta adierazi dute jauzi sendoak emateko unea iritsi zaigula. Euskara bi hizkuntza hegemonikorekin talka egoeran dagoen hizkuntza gutxitua izanik, aldeko hizkuntza politikak egin beharra ezinbestekoa da euskarari eutsiko badiogu. Gainera, globalizazio egoerak, aldaketa demografikoek eta digita-

lizazioak, besteak beste, ez dizkigute errazten hizkuntza gutxituak indarberritzeko aukerak. Dugun errealitatea, euskararen egiturazko arazoei heltzeko azken aukera izan daiteke. Jauzi berria emateko unea da, aurrerantz egiten ez badugu atzerantz egingo dugulako. Datuek horixe erakusten digute: euskal herritarren %13k erabiltzen du euskara erdarak baino gehia-

"OLDARRALDIARI AURRE EGITEKO, EUSKARAREN ALDEKO NEURRIEI TINKO HELDU BEHAR DIEGU"

go; %8 aritzen da euskaraz erdaretan baino errazago; eta, transmisioari erreparatuz gero, Hegoaldeko haurren %17k jaso du etxean euskara nagusitasunez. Era berean, euskal herritarren %4 soilik bizi da euskara nagusi den eremuetan. Alegia, euskaraz normaltasun erlatibo bizi daitekeen guneetan. Gainera, gune horiek ahultzen ari zaizkigu. Horrenbestez, ELEN Europako Hizkuntza Gutxituen sareak eta Euskalgintzaren Kontseiluak adierazi berri duten bezala, guk ere euskara larrialdi linguistikoan dagoela adierazi nahi dugu.

Horrez gain, nabarmendu behar dugu, joera soziolinguistikoaz harago, epaitegietatik ere euskararen aurkako neurriak hartzen jarraitzen dutela. Gure hizkuntzaren aurkako oldarraldian murgilduta jarraitzen dugu.

Horri guztiari aurre egiteko, inoiz baino gehiago, euskararen aldeko neurriei tinko heldu behar diegu, eta jauzi handi bat eman norabide egokian.

Eginkizun horretan berebiziko garrantzia dute arnasmuneez eta udalerrri euskaldunek, horiek erakusten dutelako posible dela euskaraz bizi den herria. Hizkuntza guztiek behar dituzte beraiek nagusi diren eremuak, hizkuntza naturalki transmititzen den eremuak, hizkuntza garatu dadin, normalizatuz eta zabalduz. Horregatik, gune euskaldunek ardura dute jauzi berri hori irudikatzeke eta bide erakusle izateko. Guk erantzukizun hori geure egiten dugu, eta konpromisoa hartzen dugu zeharkako hizkuntza politika aurrerakoia indartzeko.

Azken hamarkadetan euskara mantentzeko eta zabalteko gai izan bagara, aurrerantz ere horretan jarraitzeko bizi-indarra izango dugu. Olatu berria sortzeko unea orain da, eta olatu horren eragile izango da Udala ere.



Iazko Euskararen Galaren amaiera. Parte hartu zuten sortzaileak elkarrekin dantzan.

Euskarari eskainitako gala Aginagan

Euskararen Gala ospatuko dute azaroaren 30ean, gaueko 22:00etan hasita Aginagako Eliza Zaharrean. Geure hizkuntza eta umorea ardatz izango dituen hitzordurako sarrerak agortu ez badira, usurbilkultura.eus plataforman edo Aginagako Arraten eskuratu ahalko dituzue.

Askotariko osagaidun koktela, euskara eta umorea ardaztuko dituen. Gau bizia, euskarazko sorkuntza oholtzaratuko duena, euskarari gorazarre egiteko egun nagusiaren bezperatan. Hori eta askoz gehiago biziko duzue, larunbat gau honetan, azaroaren 30ean, Aginagako Eliza Zaharrera joan asmo duzuenok; hizki larriz idatzi beharreko Euskararen Gala.

Laugarren edizioa du aurtengoak, Oxkar Santamaria euskara alorreko zinegotziaren ideiaz martxan jarritako egitasmoak. Hazkuntza ezin nabarmenagoa izan du ekimenak, urtez urte. Hitzorduak ahoz ahokoaren bidez izan duen hedapena giltzarritzat jo du Santamariak NOAUA:ri adierazi dionez. "Suabe hasi ginen. Lehen urtean forma ondo eman

gabeko gala bat izan zen. Ahal zen moduan egiten saiatu ginen. 40-45 bat lagun elkartu ginen. Hotz handia egiten zuen. Halere, jendeak oso ondo pasa zuen, barre piloa egin zuten. Bertan geundenok dena eman genuen. Ahoz ahokoaren bidez, urtebete geroago, tankera berretsuko gala egiten saiatu eta 80 bat bildu ginen. Horrek ekarri zuen iazko ikusmina handitzen joatea. Iaz, sarrera guztiak amaitu ziren, astebe-te lehenago. Aurten, iragarri genuen egunetik jendea ari da deika eta sarrera eske", berri eman digu Euskararen Galaren sortzaileak. Urteotako bilakaera ikusita, agerikoa den moduan, ekimena "bere bidea egiten ari da eta bere ospea irabazi du".

Arestian aipatu moduan, denetariko formatuak, umo-

retik eta euskaraz plazaratzen dituen ekimena da Euskararen Gala, "non lasai eserita jar zaitezkeen, aurkezle xelebreekin artista ezberdinak ikusiz tarte atsegin bat bizi, barre egin. Izan ere, euskara eta umorea dira ardatzak", nabarmendu du Santamariak. Ezohiko izaera du hitzordu honek; emanaldien emanaldi gisa defini daiteke, formatu ezberdinak bateratu edo uztartzen dituen gala da; ezohi-

"AURTENGO EUSKARAREN GALA IRAGARRI GENUEN EGUNETIK JENDEA ARI DA DEIKA ETA SARRERA ESKE"

koa. "Koktel horretatik hori ateratzen da urtero, gala bat, aurreko urtekoarekin zerikusi gutxi duena", Santamariaren esanetan.

Ikusmina

Ezohiko formatua da, "inguruotan ikusten ez dena. Koktel bat da, formatuen nahasketak bat. Artistak lehen aldiz datozenean, azalpen moduan adierazten diegu telebistako garai bateko barietate gau baten antzekoa dela, *agiñartua*, euskaraz eta umoretik egiten duguna" eta herri mailakoa. Kanpotik ere ikusmina sortzen ari dela diote, bereziki aurreko edizioetan parte hartu duten Euskal Herriko sortzaile ezagunen inguruan, baina herri mailako gala baten xumetasunari eusteko asmo sendoa agertu du Santamariak.

Izan ere, Euskararen Galak tokiko herri sorkuntza nahiz Euskal Herri mailako aurpegi ezagunak biltzen ditu. "Etorri direnak txunditu ditu Eliza Zaharreko giro goxoak, ze umore sortzen den. Lekuak ere asko laguntzen du", nabarmendu du udal ordezkariak. Horrez gain, sortzaileen topagunea den heinean ere, "artisten harremanetza ematen da, kontaktuak egiten dituzte".

Ikus-entzuleak ere erabat murgiltzen dira jaialdi honetan. "Iaz dantzan bukatu genuen Yogurinha Borovarekin. Aurtengorako ere publikoari zuzendutako oharra gogorazazi nahi du; "gala batera ezin da normal jantzita etorri"; emanaldiaren izenak dioen moduan, galaz noski. "Merez du elegante jantzita etortzea. Fotokola ere egongo da". Sa-

"ETORRI DIRENAK TXUNDITU DITU ELIZA ZAHARREKO GIRO GOXOAK, ZE UMORE GIROA SORTZEN DEN"



Denetarik sorkuntza formatuak uztartzen ditu Aginagako Euskararen Galak.



Ikus-entzuleak erabat murgiltzen dira galak dakartzan ezusteko emanaldietan.

rrerak bizi eskuratzeko deia egin du, bera elkarriketatu genuenerako gutxi geratzen ziren eta.

Euskaraldiaren aurkezpena

Ohitura zorrotz segitzen dute Aginagan Euskararen Galarekin; lehen ediziotik beti, abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunaren aurreko larunbatean ospatu ohi dute Eliza Zaharrean. Gala honek euskara bere "DNA"-n daraman arren, aurtengoak lotura are estuagoa izango du. Izan ere, eskainiko diren saioen artean, Euskaraldia Usurbilen dinamizatuko duen herri batzordea aurkeztu eta maiatzean egingo den ariketa kolektiboaren nondik norakoan berri emango dute gala honen baitan. "Aurkezpen ofiziala" izango dela aurreratu du Santamariak; "zer hobeto Euskararen Gala horretarako baliatzea baino". Bide batez, jada lanean hasia den herri batzordean parte hartzeko gonbita egin du zinegotziak. "Eskuzabalik hartuko ditugu kide berriak", nabarmendu digu. Ate joka den Euskararen Egunaren harira antolatu diren gainerrako ekimenetan ere parte hartzeko deia egin du; "aldarrikatuz, harro ospatu beharreko eguna" dela deritzo.

Ildo beretik mintzatu da baita, hamarkada batez, NOAUA!-ren lehendakari izan-

dako Idoia Torregarai Martija. Euskararen Eguna berarentzat "garrantzitsua da, euskarak oraindik normalizazio falta duelako. Azkenaldi honetan, badirudi aurrepausoak eman beharrean, pauso bat eman aurrera eta bi atzera ematen ari garela; hau da, herrigintzatik, erakundeetatik ari da halako aurrerabide bat eman nahian eta gauza piloa egiten". Aldiz, gogora ekarri ditu epaitegietatik kaleraturiko euskararen aurkako epaiak. "Oraindik esparru eta toki asko irabazi behar dira. Beraz, uste dut Euskararen Egunak behar du aldarrikapen hori guk ere indar hori erakusteko, baina ez egun edo aste bakar batean, urte osoan ahalegindu behar gara guztiok. Gure eskubideen jabe egin behar gara, eremu berriak sortu eta hori dena egunero aplikatzeko moduko estrategia amankomun batean egin behar dugula uste dut", adierazi dio NOAUA!ri.

Honako hau urte garai mugitua izan ohi du Torregaraiak

"GOI MAILAKO LUXUZKO EKITALDIA DELA IRUDITZEN ZAIT, OSO DIBERTIGARRIA"

eta aurtengoa ez da salbuespena izango. 59. Durangoko Azokan izango da Mirari Martiarenarekin batera "Ztandap" emanaldiarekin abenduaren 6an eta egun berean, 12:30etatik aurrera Zaldierorekin batera bien "Mikroipuinak" eskuragarri jarriko dituen postuan izango da. "Guretzat aukera zoragarria izaten da. Euskal Herriko txoko askotako jendea eta programatzaileak joaten baitira. Gainera, euskararen sormen plaza izanda, guretzat bertan parte hartzea oparia da. Gure onena ematen saiatuko gara hor ere".

"Energia berezia du"

Lerrootara baldin badarkakigu, aurrez, Aginagako Euskararen Galan izango delako da. "Ikuskizun ederra da, benetan joatea merezi duena. Goi mailako luxuzko ekitaldia dela iruditzen zait, oso entretenigarria, dibertigarria. Formatu nahasketak berezi egiten du ikuskizun hau". Baita, noski, ezaguna duen tokiak ere.


"OSO TOKI AUTOGESTIONATU GUTXI EGONGO DA, HAINBESTEKO MIMOS ZAINTZEN DENA"

"Energia berezia du. Uste dut oso toki autogestionatu gutxi dagoela, hainbesteko mimoz zaintzen dena. Giro berezia sortzen da. Denak laguntzen du zuk zure onena emateko gogoia izateko. Bertan jardutea oso berezia da. Kanpotik datozen denak maitemintzen dira tokiarekin. Ez naiz harritzen", nabarmendu du Idoiak.

Loratzea


Bakarriketa saioa eskainiko du. Prestaketa lanak abiatzeaz zituela elkarriketatu genuen. Argi du, "gertutasunetik herritarrei keinua egiten saiatuko naiz. Horraino esan dezaket oraingoz". Berarekin batera arituko dira Ander Malbadi eta Julen Portillo. Bakarriketen formatua sasoiko dagoela agerikoa da azkenaldian. "Benetan pozgarria da. Mirarik eta biok herriz herri gabiltza azken urteotan, aurretik baziren Txiki, Jon Plazaola, "Bodologuak"... Inflexio puntu bat izan zen ETB-ren "Barre Librea". Formatu hori telebistara eramatek etorri da loratze hau. Euskarak behar du denetarik asko eta kasu honetan, formatu honen loratzea izatea benetan zoragarria da. Beraz, poz-pezik alde horretatik baita ere".

Lerrootako bi elkarriketaketuek euskaraz eta umorez blaituko gaituen galara gonbidatu gaituzte guztiok.



Handienetik txikienera

Ordena itzazu negutegiko arrosa hauek handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 10.



GALDER

	G	D		R	
R		L		A	
		R	A	G	
	A	E	L		R
	R			L	A
D	L	A		E	

	I			D	
R					A
	A	R		M	D
	D		A	R	
A					M
	M			A	

MAIDER

Hona hemen bi sagu karraskari sinpatiko: Galder eta Mainer. Bakoitzak sudoku bana du, baina bakarren batek hizkiak ezabatu dizkie (beharbada beste saguren batek jan ditu karraska). Orain zuri dagokizu bi sudokuak behar den bezala osatzea. Goiko sudokua Galderrena da (G, A, L, D, E eta R hizkiak ditu), eta behekoa Mainerrena (M, A, I, D, E eta R). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Karraska

Gabonetako dominoa




Osatu lauki zuriak domino zati hau zuzena izan dadin.

Zenbatu


Hemengo saguak erabat lotsagabetuta daude, ezta? Hamelingo txirulariari deitu aurretik, zehazki zenbat diren jakin beharko genuke. Hortaz, zenbatu itzazu, mesedez.

Eta, ondoren, koloreztatu irudi osoa, artista bikaina zara eta.



Counting exercise with food icons and empty circles for answers.

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>			
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>			
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>			
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	



Mezu gordea

Eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta Imanol Urbietaren abesti polit bat agertuko zaizu. Hizki-marrazki alfabetoa erabilgarri izango zaizu horretarako.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	N
O	P	Q	R	S	T	U	V	X	Y	Z	.	,	!	?

Itzalak

Lotu zuhaitz bakoitzari bere itzala.

Tree coloring and shadow matching activity.

1	2	3	4	5	6	7	8
a	b	c	d	e	f	g	h

Bide batez, margotu zuhaitzak horiz, berdez, laranja, marroiez, gorriz...



Durangoko Azoka ate joka dugun honetan, Euskarazko Produktuen Katalogoa erabiltzea lagungarri izan daiteke.

Euskaraz jolastu, dastatu eta partekatzeko

Hego Euskal Herriko makina bat udalek euskarazko produktuen katalogoa ondu dute aurten ere, elkarlanean. Tartean dira, nola ez, Buruntzaldea eskualdeko seiak: eskolen bidez banatuko dituzte Andoain, Hernani, Urnieta eta Usurbilek; Lasarte-Oriak, aldiz, etxez etxe; eta, Astigarragak, azkenik, eraikin publikoetan eta liburu dendetan.

Euskarazko Produktuen Katalogoa erabiltzen duten guztien zentzumenak dantzan jarriko dituzten eskaintza prestatu dute Hego Euskal Herriko udal eta mankomunitatetako ehun Euskara zerbitzu baino gehiagok, 'Jolastu, dastatu eta partekatu' lelopean. Ohi bezala, 0-12 urte arteko haurrei zuzendutakoa da produktu sorta bat, eta 12-16 urte arteko nerabeentzat bestea. Urteko zein garaitan gauden kontuan izanda, sustatzaileek nabarmendu dute "seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburu, musika, jostailu edota jokoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea" dela. Horrekin batera, gogorarazi dute aurten 26. aldiz kaleratu dute-la aipatu bilduma hori.

Bi hamarkada baino gehiago daramatzate euskarazko produktuen katalogoa herritarren eskura jartzen, eta, eskaintzak erakargarri izaten jarrai dezan, itxuraldatu egiten dute maiz. Gauzak horrela, jakinarazi dute

paperezko edizioak eta "eten-gabe" eguneratzen duten atari digitalak (www.katalogoa.eus) "azal berriak" estreinatu dituztela aurten.

Atari digitalean, 10.000 erreferentzia baino gehiago

Paperaren gisako euskarri fisikoei oraindik garrantzi handia badute ere, gero eta pisu gehiago irabazten ari da euskarazko produktuen katalogoaren atari digitala: webgune horrek 10.000 produktu baino gehiagoren erreferentziak jasotzen ditu dagoeneko. "Bizi-bizirik" dagoen atari digitala da, eguneratuta mantentzeaz arduratzen diren langileek kendu egiten dituztelako dagoeneko deskatalogatuta dauden produktuak, sortzaileek ondu dituzten berriengatik ordezkatzeko. Hori horrela izanik, www.katalogoa.eus-en sartzen direnek aukera izango dute 0-12 urte artekoentzako (7.706 produk-

tu daude gaur-gaurkoz) nahiz 12-16 urte artekoentzako (3.428 produktu daude gaur-gaurkoz) liburu, disko eta bestelakoak ezagutu eta begiz jotzeko, atal bakoitzak bere direktorio propioa duelako. Hartara, tipologia bakoitzeko produktuen bilaketa nabarmen erraztu eta hobetzen da, arrazoi honengatik: produktuak titulu, argitaletxe, autore, adin tarte edota prezioaren arabera bistara daitezkeelako. Hori egin ostean erabiltzaileen batek produkturen bat erosi nahi badu, argitaletxearen denda birtualera sartu ahal izango du, 'Non eskuratu' botoia sakatuta.

KATALOGOAREN ATARI DIGITALEAN 10.000 PRODUKTU BAINO GEHIAGO DAUDE AUKERAN

Paperezko 50.000 eskuorri banatuko dituzte egunotan

Egunotan banatuko dituzte euskarazko produktuen katalogoaren 50.000 ale Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan. Azken urteotan egin izan duten bezalaxe, euskarri horretan editatzen duten eskuorriak bi atal nagusi izango ditu: azal batek sarbidea emango die 0-12 urte arteko haurrentzako eta euren gurasoentzako eskaintzara, eta, besteak, 12-16 urte arteko nerabeek dituzten aukeretara. Bilaketa nabarmen errazteaz gain, adin tarte bakoitzari "nortasun propioa" ematea izan da diseinatzaileen helburua.

Ekimen honen sustatzaileek nabarmendu dutenez, paperezko katalogoan erabiltzaileek ez dituzte topatuko atari digitalean bezainbeste produktu, baizik eta atalka (jostailuak eta jokoak, musika, DVD filmak, aplikazioak, aldizkariak, liburuak, gurasoentzako materiala eta komikiak) antolatutako hautaketa bat baizik.

Eskualdeko udaletako Euskara zerbitzuek jakinarazi dutenez, Buruntzaldea osatzen duten sei udalerrietatik lautan (Andoain, Hernani, Urnieta eta Usurbil) eskolen bitartez banatuko dituzte katalogoak; Lasarte-Oriakoak, berriz, etxez etxeko banaketa egingo du; eta, Astigarragak, udalerririk horretako eraikin publikoetara eta liburu dendetara eramango ditu eskuorriak.

Nobedadeen buletina

Euskarazko Produktuen Katalogoaren nobedadeak etengabe berritzen dituzte atari digitalean. Horien berri unean unean izan nahi dutenek aukera paregabea dute www.katalogoa.eus/buletina helbidean harpidetu eta berrikuntzaz betetako hamar buletin jasotzeko urtearen buruan. Helburua hau da: merkatuan aurki daitezkeen euskarazko azken nobedadeak ere erabiltzaileen eskura jartzea, modu erraz batean.

"Olentzero eta Mari Domingiri zer eskatu behar diogun erabakitzekeo tresna oso egokia da"



Ama-semeak, katalogoa kontsultatzen.

Eguberriak iristear daude eta ez dira gutxi Euskarazko Produktuen Katalogoa erabiltzen duten familiak gure eskualdean, Olentzero eta Mari Domingiri zer eskatu erabakitzekeo. Hala egin izan du, esaterako, Puyada-Zatarain familiak. "Tresna oso egokia da, erabiltzeko erraza eta gauzak errazten dizkiguna. Eta gustatzen zaigu, batez ere, euskarazko eskaintza dakarrelako". Etxean jasotako paperezko eskuorria erabili izan dute normalean baina begiratu izan dute atari digitala ere, oparitarako eskatu beharrekoa zerrendan idazteko gero. Zeregin hori familian egiten dute gainera, katalogoa eskuetan hartuta edo ordenagailuaren aurrean. Onartu dute batzuetan ez zaiela erraza egiten produktu erakargarri asko dakartzalako katalogoak, "ongi sailkatuta" eta "garrantzitsua den informazioarekin" gainera: adin tartera, prezio orientatiboa... Aurten ere erabiliko dutela aurreratu dute eta familia guztiei gomendatu diete paperean nahiz sarean katalogoa begiratzea.



JOSTAILUAK ETA JOKOAK

- Adarbakarrak
- Animalien mundua

MUSIKA

- Txapasesen kaxa magikoa
- Batetik bestera

DVD FILMAK

ALDIZKARIAK

GURASOENTZAKO MATERIALA

APPak

KOMIKIAK

LIBURUAK

- Amestoki goxoa
- Anderea




Liburuak 12-14 urte

- Albo ondorioak
- Argia aurkitzeko bidala
- Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian

Musika

- Behin bizitzea
- Azken batean

Komikiak

- Itsaso gaztaren balada bat
- Mugako dragoiak

Liburuak +14 urte

- Gazako egunerokoa
- Izarrak eta haitzak
- Narrazioak eta olerkiak






Herri ordezkaritza zabala, Durangoko Azokan

"Hartzea ematea da" aldarripean, abenduaren 5etik 8ra egingo da 59. Durangoko Azoka. 933 nobedade eta 200 ekitaldi izango dira. Tartean, urtero moduan, herri ordezkaritza izango da bertan, sorkuntza lanak aurkezten. Lerrootan dituzue hitzordu horiei buruzko xehetasunak.

Abenduak 5, osteguna

• **16:00-17:15** Ibon Gaztañazpiren "Errio" filmaren emanaldia Irudienea-Zugazan. Zehaztasunak: "Oharkabeen pasa den historia handiko lekua da Orioko errioa: Altxerriko leizea, balea arrantza, Europa osoko erreferentziazko ontziolak, baserri-bizitza... Nagore Urdapilleta arraunlariaren eskutik, Oria ibaian gorako bidaia da dokumental hau, erriko historia, istorioak eta leku harrigarriak ezagutzuz".

• **20:20-20:50** Amebaren kontzertua Ahotsenea Musika-Plateruenan. Zehaztasunak: "2019an Usurbilen jaiotako rock talde gaztea gara. Lagun artean sortutako laukotean pixkanaka hartutako indarrarekin sortuzen lehen lana, *Elikatuz* izeneko diskoa. Orain, lau ur-

teren ostean, eraberrituta gatzoz musika berriarekin. Estilo definituagoa duten kantuek dira hauek eta taldearen garapena islatzen dutenak. 8 kantuz osatutako diskoa izan da azken lana, *Munduari* izenekoa, 2024an argitaratua".

Abenduak 6, ostirala

• **13:00-13:30** Yolanda Arrieta Malaxetxebarriaren "Gutunak birramamari" liburu aurkezpena Saguganbara-Elkartegian. Zehaztasunak: "Asak zortzi urte dauzka eta lau neba-arreba txiki. Bi edo hiru lekutan bizi izan da oraingo herrira etorri baino lehen. Zortzi urte egin zituenean, birramama hil zitzaion. Asak asko maite zuen. Orain, beste modu bat aurkitu du harekin hitz egiteko: gutunak".

• **16:00-16:40** Elhuyarren "Adimen artifizial sortzailea?" mahaingurua Kabi@-Landa-kogunean.

• **17:00-17:30** Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenaren "Ztandap, binakako bakarrizketak" Szenatokia-San Agustín Kultur Gunean. Zehaztasunak: "Bakean Dagoena Bakean Utzi" eta "Luze edo Motz" emankizun arrakastatsuen haritik, "ZtandaP" ikuskizun honetan ere generoa

EGITARAU OSOA ETA INFORMAZIO GEHIAGO DURANGOKOAZOKA. EUS ATARIAN JASO AHALKO DUZUE

hartuko dute umoregai eta eguneroko gaiak lehertzen saiatuko dira betaurreko umoreak jantzita".

• **17:00-17:30** Argiaren "Ilargia eta landareak agenda 2025" aurkezpena Talaia-Durangoko Museoaan.

Zehaztasunak: "Ilargiaren araberako urte guztiko lanak, as-tero nola egin baratzean, fruitu arboletan, lorategian eta basoan. Zortzigarren urtez, Jakoba Errekondoren urteetako jakintza eta esperientziazko topatuko dituzu, zehaztasunez eta mimoz egindako lan honetan. Antton Olariagarenak dira azala eta barruan dauden animalia laguntzaileei buruzko hamahiru lamina ikusgarri".

Abenduak 7, larunbata

• **13:00-13:30** Tupust! Komiki Kolektiboaren "Gu Tupust!", antologiaren azken alearen aurkezpena Ahotsenea Literaturan. Tartean da, Ainara Azpiazu Aduriz "Axi"ren sortze lana.

• **17:30-18:00** "Ilargia egutegia 2025" Argiaren egutegia aurkeztuko du Jakoba Errekondok Talaia-Landakogunean.

Abenduak 8, igandea

• **12:00-12:30** "Lamiak eta emagina" Denonartean-en liburu aurkezpena Saguganbara-Elkartegian.

Zehaztasunak: "Iñaki Martiarena Otxotorenak eta Ixabel Agirresarobe Arzallusek, liburuaren egileek, kontakizun marraztua egingo dute. Lamiak bat erditzen ari da. Arazo bat dela-eta, laguntza eske joango dira lamiak, herrira".

• **12:30-13:30** "DA! Karten baten historia. Euskal Irudigileak" elkarrizketa saioa Balu eta Ainara Azpiazu Aduriz "Axi"-rekin Talaia-Durangoko Museoaan.

Azokaren ordutegia:

10:30-20:00 (abenduaren 8an 18:00ak arte).

Egitarau osoa:

durangokoazoka.eus.



Errigorako saskiak astelehen honetan iritsi ziren NOAUA!ko bulegora.



Saskiak osatzeko, 200 boluntario batu ziren azaroaren 9an Ablitasen.

"16.000 saski saldu ditugu. Kanpaina onenetakoa izan da"

Errigorak 230.000 euro bideratuko ditu Ager zonaldeko euskalgintzara. "Kopuru hau inoiz saskien bidez lortu den handiena da, beraz, badugu zer ospatu", azaldu dute.

Errigorako saskien salmenta kanpainak urriaren 24an abiatu eta azaroaren 14ra bitartean iraun du, 'Agerreko uzta euskarari puzka!' lelopean.

Amaitu berri den edizio honetan, arreta berezia jarri da Errigoraren jatorrizko kanpainaren ideia nagusian, hau da, "Nafarroa erdi eta hegoaldeko euskalgintzari bidali beharre-

ko elkartasunean. Horrela, Euskal Herriko metropolian abiatu genuen kanpaina, Bilbon, bertako euskalzaleen babesa erakutsiz eta hango eta hemengo euskalzaleei auzolan erraldoiera batzeko dei eginez".

16.000 saski

Errigoraren saskiak gero eta onarpen maila handiagoa

duela esan daiteke. "Emaitzei begira, Errigoraren kanpaina onenetakoa izan da aurten goa". Elkartasun ekimen honen sustatzaileek aditzera eman duenez, "16.000 saskiren bidez 230.000 eurotik gora bideratuko ditugu Ager zonaldeko euskalgintzara (AEK, Ikastolak, Sortzen eta Agerraldia)". Ez da kopuru makala. Are gehiago, "inoiz saskien bidez lortu den handiena da, beraz, badugu zer ospatu".

"Auzolanari esker"

"Ezin hobeak diren emaitza horien atzean komunitate oso baten ahalmena eta ahalegina dagoela argi gelditu da", diote Errigorako bultzatzaileek. "Boluntarioen, ekoizleen eta kontsumitzaileen indarrari esker lortu dugu

aurtengo kanpainaren arrakasta. Auzolanari esker bakarrik da posible. Beraz, jarrai dezagun auzolana indartzen".

Banaketa martxan da

Saskiak eskatzeko epea bukatu zenean, atzeraketa kontaketa hasi zen. "Azaroaren 9an 200 boluntario batu ginen Ablitasen". Eskaera guztiak saskietan txukun-txukun batu ondoren, banaketari ekin zioten.

Beraz, Errigorako saskien distribuzioa martxan da honez gero. Usurbilgo kasuan, astelehen goizean iritsi ziren Errigorako saskiak NOAUA! Kultur Elkarte bulegora.

Beraz, oraindik bila pasa ez zaretenok, saskiak zain dituzue NOAUA!n. Bordaberri 3 behea kalean aurkituko duzue egoitza.

Zuberoako ikastolen aldeko saskiak Santomas azokan banatuko dira

Errigoraren saskiaz gain, baten elkartasunez betetako beste eskaintza bat aukeran: 'Ikaskoli' saskiak, Zuberoako ikastolen aldekoak. Usurbilen zehazki, tradizio luzea du ekimen honek. Iaz, esate baterako, 200dik gora saski saldu ziren.

Aurtengo kanpaina amaitu da. Eskaerak egiteko epea

aurreko asteburuan bukatu zen.

Abenduaren 15eko azokan

Ikaskoli saskiak abenduaren 15eko Santomas azokan jaso ahal izango dira. Eta bestela, abenduaren 16tik aurrera NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan egongo dira eskuragarri.



Ikaskoli saskiak abenduaren 15ean iritsiko dira.



Aurreko igandean, 'Usurbil 58' dokumentalaren proiektzioan, jendetza batu zen Sutegin.

"Oso aldatua dagoen Usurbil ikusiko dugu"

'Usurbil 58' dokumentalaren estreinaldiak jakinmin handia piztu zuen. Ia goraino bete zen Sutegi eta bertaratu zirenek une eder bat igaro zuten. Barre ere egin zuten gogotik, dokumentalean agertzen diren herritarren ateraldiekin. Proiektzioari ekin aurretik, Juan Illarramendiren familiak hitza hartu zuen eta dokumentala egin zuten guztien ahalegina eskertu zuen.

"Gehientsuenontzat ezezagunak diren irudi batzuk ikusiko ditugu", aurreratu zuen NOAUA! Kultur Elkarteko dinamizatzaile Alaitz Aizpuruak, proiektzioa abiatu aurretik eginiko aurkezpenean.

Berezitatza jo zuen emanaldia bera, kultur elkarte honek Sutegin antolatutako hitzorduetan besteen sorkuntza lanak ekarri izan dituelako; aurreko igandekoa ordea, NOAUA!k berak ekoiztutako lan bat izan zen, "guretzako berezia" dena, Aizpuruak azpimarratu zuenez.

Juan Illarramendik hasitako lana Inoiz ikusi gabeko udalerrri honi buruzko irudi bilduma biltzen duen dokumentala aurkeztu genuen estreinako z jendaurrean, "garrantzia berezikoa" Aizpuruak nabarmendu zuenez, "batez ere oso

aldatuta dagoen edo batzuk sekula ikusi ez dugun Usurbil ikusiko dugulako eta baita dagoeneko gure artean ez dauden herrikideak ere".

Dokumental honen ekoizpenaren abiapuntua zein izan zen azaldu zuen eta hemen izen gakoa; Juan Illarramendi. Ikus-entzunezko lan hau gauzatu izanaren "benetako meritua" berea dela azpimarratu zuen. Izan ere, irudiak duela 66 urtekoak dira, Illarramen-

**JUAN
ILLARRAMENDIREN
SUPER8 IRUDIAK
EUSKADIKO
FILMATEGIAN
TOPATU GENITUEN**

dik berak "super8 kamera batekin grabatutakoak", eta horiek dira NOAUA!k aurkeztu berri duen sorkuntza-lanaren muina.

Irudi mutuak, soinurik, hitzik gabekoak ziren, ordea. "Hitzen eta hotsen falta hori nabarmentzen genuen" eta horri konponbide ezin ederragoa aurkitu zioten dokumentalaren egileek. Irudi haietan agertu edota garai hura bizi izandako herrikideek hartu dute

**"FAMILIARI ESKER,
ITZALEAN ZEUDEN
IRUDI HAUEK
ARGIRA EKARRI
AHAL IZAN
DITUGU"**

hitza dokumental honetan. "Haiek dira dokumental honen soinu-banda". Irudiotan ageri denaz, garaiko bizipen, Usurbil eta usurbildarrez mintzo dira denak.

Jende askoren ahalegina

"Berreskuratutako altxor txiki honekin" eta aurkeztutako lanarekin pozarren da NOAUA! Kultur Elkartea. Alaitz Aizpuruak eskerrak helarazi zizkien sorkuntza lan hau ekoiztea ahalbidetu dutenei; "bai Euskadiko Filmategiari, bertan zeudelako irudi horiek, baita Zumarte Musika Eskolari ere", azken honen kasuan zerikusi zuzena izan dutelako "irudi hauek guganaino iristeko".

Haiez gain, eskerrak helarazi nahi izan zizkien "dokumentalean ikusiko ditugun protagonistei". Herrikide talde hau da hain zuzen, 'Usurbil 58' ikus-entzunezkoari soinu-banda jarri diona: Asintxio Pagola, Javier Pikabea, Lurdes Urkia, Manuel Goenaga, Arantxa Alkorta, Kintin Seguroa, Arantzazu Aranburu, Koro Iribar, Iñaki Mujika eta Roman Manterola.

Udalaren dirulaguntza, funtsezkoa

Herri ekoizpena izan da honakoa. Luis Jambrina arduratu da errealizazioaz eta Ixabel Agirresarobek aurkezle lanak egiteaz gain, dokumentaleko solasaldi ezberdinak gidatu ditu. Ezin aipatu gabe utzi, lan honek Usurbilgo Udalak sorkuntza sustatzeko duen deialdiko dirulaguntza jaso duela. Babes "horri esker, lan profesional eta txukun bat egin ahal izan dugu", azpimarratu zuen Alaitz Aizpuruak.

Haiek guztiak eskertzearekin batera, Sutegiko auditorioan bertan zegoen Juan Illarramendiren familiari ere esker ona adierazi zitzaion. "Haien eskuzabaltasunari esker egin ahal izan dugu dokumentala. Zuei esker, itzalean zeuden irudi hauek argira ekarri ahal izan ditugulako".



Juan Illarramendiren senide ugari etorri ziren aurreko igandeko proiektzioa. Usurbilgoak nahiz Usurbildik kanpo bizi direnak.

"Bihotzez eskertzen diegu hau guztia oroitzea posible egin dutenei"

Dokumentalaren proiektzioaren aurretik, Mertxe Illarramendik eta Maia Jambrinak esker oneko idatzi bat irakurri zuten Sutegira bertaratu zirenen aurrean.

"Gaur egun berezia da Juanito Illarramendiren familiarentzat, 50eko hamarkadako bere filmak biltzen dituen dokumental bat aurkezten baita. Irudi hauek gure haurtzaroa ekartzen dute

gogora: herriko jaiak, bizikleta lasterketak, pilota partidak, euskal dantzak frontoian... Bere lanak herri adakor baten esentzia harra-patzen du, gure oroimenean bizirik mantentzen dena.

Irundarra jaiotzez eta usurbildarra bihotzez, Juanito Fraisoroko umezurztegian hazi zen eta hainbat ofiziotan lan egin zuen Aurrezki Kutxan plaza bat lortu aurretik, Usurbilen kokatuz. Bere komunitatearekin konprometitutako gizona izan zen, haurrentzako zinema antolatuz, musika sustatuz eta elizako abesbatza parte hartuz. Dena ilusioz egiten zuen, alaitasun eta batasun ondare bat utziz.

Bihotzez eskertzen diegu hau guztia oroitzea posible egin duten guzkiei. Mila esker!".

'Usurbil 58' jada salgai Laurok-en, Lizardin eta NOAUA!n

Sutegiko estreinaldi arrakastatsua eta gero, dokumentala eskuragarri duzue Lizardi eta Laurok denetan eta NOAUA!ko bulegoan.

DVDn eta USBn

Argitalpena DVD batekin eta USB memoria batekin osatzen da. Batean zein bestean, bi artxibo topatuko dituzue:

- Juan Illarramendiren irudi originalak. Denbora: 20'11".
- Juan Illarramendiren irudiak baliatuz osatutako dokumentala. Denbora: 51'16".

Prezioa, 10 euro

NOAUAko bazkideek 8 eurotan eskura dezakete, baina soilik NOAUA!ko bulegoan.

USURBIL 58 Dokumentala

Altxor txiki bat, opari handi bat

2023ko udazkenean, Usurbilgo irudi zirraragarri batzuk topatu genituen Euskadiko Filategian. Juan Illarramendik grabatu zituen 1958 eta 1960 urteen artean. Orain arte ikusi gabeak. Sutegiko estreinaldi arrakastatsuen ondoren, dokumentala eskuragarri duzue.

Dokumentala, salgai

'Usurbil 58' argitalpena DVD batekin eta USB memoria batekin osatzen da.

Batean zein bestean, bi artxibo topatuko dituzue:

- Juan Illarramendiren irudi originalak. 20'11".
- Irudi horiek baliatuz osatu dugun dokumentala: 51'16".

NOAUA!ko bulegoan, Lizardi eta Laurok liburudendetan salgai.

Prezioa: 10 euro.





Bea Egizabal 'Gregoria' pertsonaia gorpuzten, haserre eta zira jantzita, euripean.

"Borroka egun batean jantzten da horrela Gregoria"

BEA EGIZABAL AKTOREA, UMOREGILEA

Bea Egizabal umoregileak 'Gregoria' izeneko ikuskizun berria eskainiko du igande honetan Zubietako elizan, arratsaldeko 18:00etan hasita. "Ikuskizuna ez da inor mintzeko modukoa, elizaren azala nahiko fina izaten da, baina ez dut uste ezer larririk egingo dudarik".

'Gregoria' ikuskizun berria aurkeztuko duzu igandean Zubietan. Nor da Gregoria?

Gregoria ni naiz, baina batez ere nire alteregoa. Ez zait alterego hitza gehiegi gustatzen, badirudi oso garrantzitsua naizela edo ez dakit nor sentitzen naizela. Ni oso pertsona normala naiz, baina badut beste alde hori ere. Eszenatokira ateratzen naizenean agertzen den pertsonaia da, azken finean. Ni naiz, baina ni ez naiz beti hain barregarria. Gustatuko litzaidake halako umorea eta energia izatea beti, baina, agian, oso nekagarria izango litzateke, ez dakit. Nik uste pertsona bakoitzak pertsonaia asko di-

tuela barnean, eta hori esploatatzen dut, alterego hori.

Karteleko irudian zira horia jantzita eta haserre dirudizu. Gregoria ere haserre dago euripean?

Gregoriaren ezaugarri bat haserre da, ez daki ondo erabiltzen, baina haserre dago. Karteleko irudiak zerikusi handia du ikuskizunean erakutsiko dudarekin. Denak du azalpen bat, baina ez dut ezer gehiegi aurreratu nahi. Spoilerrik ez dut egin nahi. Borroka egun batean jantzten da horrela Gregoria, nahiz eta ikuskizunean ez den horrela jantzita egongo. Zira horiarena iruditeriarako

argazki bat da, ikuskizunean ez naiz hala jantziko.

Zubietako elizan izango da ikuskizun hau. Jainkoaren etxean ez dago edozer eta edonola esaterik. Pandemia ondorengo garaian herri askotan elizetan ekintzak egiten hasi ziren. Herri txiki batzuetan, areto

"IGANDETAN MEZA ETA LARUNBATETAN IKUSKIZUNAK; HORRELA DA LEKU BATZUETAN"

egokiagorik ez dagoen lekue-tan hala egiten dute aspalditik. Parrokoarekin hitz egingo dute eta haren baimenarekin edo. Ez da horren atipikoa, niri behin baino gehiagotan tokatu zait ikuskizuna elizan egitea. Horrelako egoera berezietan tokatu zait niri ere ikuskizuna egitea, eta gainera, halako leku batzuk deskralizatuta daude. Igandetan meza eta larunbatetan ikuskizunak; horrela funtzionatzen dute leku batzuetan. Behin baino gehiagotan tokatu zait eliza batean ikuskizuna egitea eta hasieran inpaktatzen du, baina jada ohitu naiz. Ni jaunartzea egindakoa naiz eta garai batean igandero meza-tara joaten zen umea izan nintzen. Orain ez, baina sinbolikoki hori hor dago. Txipa segituan aldatzen dut, areto normal bat dela pentsatzen dut eta baimena eman dute-nez ikuskizuna bertan egiteko, ez dago baldintzarik. Egiten ari naizen bitartean jabetzen naiz egoeraz, lehenago ez dut horretan pentsatzen. Magma mia-rekin eta zoru pelbikoaz jarduten nintzen eta parean Jesukristo gurutziltzatuta. Kurioso da. Behin Jesukristo gurutziltzatuta neukan ikuskizuna egiten ari nintzela nire atzean, eta tapatu egin zuten oihal batekin ez ikusteko eta argazki batzuk atera zizkidaten. Etxean ikusi nituenean, bazirudien sa-guzahar erraldoi bat neukala gainean. Oso gauza kuriosoak gertatzen dira, baina beste edozein areto balitz bezala hartzen dut. Ikuskizuna ere ez da inor mintzeko modukoa, elizaren azala nahiko fina izaten da, baina ez dut uste ezer larririk egingo dudarik.

Emakumeak eta feminismoa, hori izaten da zure ikuskizunen gai zentrala. Zergatik gai hori?

Nik ez dut gai modura ulertzen. Gauzak azaltzerakoan daukadan ikuspegia da. Magmamia-n gai asko lantzen ditut emakumeonak direnak: zoru pelbikoa,



'Gregoria' ikuskizunaren estreinaldian, Gasteizen, Bea Egizabal lanean. IÑIGO SERRANO USAOLA

menopausia... gaiak horiek dira, baina azterketa egiteko ikuspuntu bat behar dute, eta nirea begirada feminista horretatik da. Hautu hori egiten dut, zehar lerro bat da. Gregorian nabarmenagoa danire ibilbidea kontatzen dudalako feminismoan. Ez da autofikzio bat ere, baina ezzara feminista jaiotzen, zerbaitek bultzatzen gaitu borroka horretan sartzera. Beraz, feminismoa bai, baina nire esperientzietan oinarritzen da, autofikzio moduko bat edo. Neure buruaz barre egiteko modu bat da eta jende asko identifikatuko da nirekin.

Feminismoa etengabeko mugimenduan dago eta hausnarketak gero eta gehiago eta anitzagoak

dira. Eguneratuta egon beharra dago. Nola lortzen duzu zaharkituta ez gelditzea?

Oso ondo inguratuta egotea da giltzarri nagusia. Edozein gaitan bezala, interesa izatea beharrezkoa da ulertu ahal izateko. Pasioa sortzen badizu zerbaitek, hor egoten saiatzen zara eta gaia lantzen duzu modu askotan. Pentsa-

"GREGORIAREN BIDEZ, NIRE IBILBIDE PERTSONALA KONTATZEN DUT FEMINISMOAN"

mendu kritikoaz ari garenean, gaitasuna behar da ulertzeko. Gazteek pentsamendu abstraktorako badute gaitasun hori, kontzeptu horiek ulertzeko. Nik neure ibilbideagatik ulertzen dut ahal dudana. Batzuek bi hilabetetan ulertzen dutena ulertzeko, bost edo sei urte behar ditut barneratzeko. Feminismoan

"BATZUK BI HILABETETAN ULERTZEN DUTENA BARNERATZEKO, BOST EDO SEI URTE BEHAR DITUT"

oso argi dago duela 20 urte inork ulertzen ez zituen kontu asko gaur egun agenda nagusian daudela. Hasiara batean lau feminista ero eta erradikalen ideia izan diren horiek oso onartuta daude eta ofizialak dira orain. Hor egon behar da entzuteko, eta askotan ez dut ezer ere ulertzen, baina barneratzen joaten da. Ni saiatzen naiz hor egoten eta ideia berriak entzuten, eta agian, bost bat urtera edo, horiei buruz hitz egiteko gai izango naiz. Norbaitek ez ulertzeak ez du esan nahi arrazoirik ez dutenik. Denok izan ditugu 20 urte eta orduan ere ez gintuzten ulertzen. Orain ere bost bat urte atzeratuta nabil edo gehiago, hori beti izaten da horrela. Kontzeptuak ezagunak egiten zaizkit, terminologia berria, baina horiek erabili eta ikuskizunetan sartzeko urte batzuk behar ditut. Bost urte esaten dudanean, oso modu baikorrean esaten dut, gehixeago ere izango dira, ordea. Azken batean, bakoitzak bere erritmoa dauka testuinguruaren eta adinaren arabera.

Gregoria beste leku batzuetan ere aurkeztu duzu? Zein harre-ra jaso du?

Entsegu orokorraz gain, bi ikuskizun egin ditut: Gasteizen eta Anoetan. Bi modu daude estreinatzeke: lau haitzetara zabaldua edo isil samarrean oraindik ikuskizuna ez dakizulako ondo eta probak egiteko beharra daukazulako. Bigarren hori naiz ni. Horregatik estreinatu dut horren modu diskretuan, eta gainera, Gasteizekoak ez zeukan izen bera. Kostatu zait izena erabakitzen ere. Kartela, izenburua eta denarekin ia primizia izango da Zubietako ikuskizuna, Anoetaren ondoren. Ikuskizun berria da, labetik atera berria. Kanpaina urtarrilean egingo dut ikuskizun berria zabaldu eta plaza ezberdinetan egiten hasiteko.

Zumarteren ospakizuna, astebetetz atzeratua

Eguraldia tarteko, Zumarte Musika Eskolak ezin izan zuten azaroaren 21erako aurreikusitako ekintza guztiak egin; aterpean, Sutegiko auditorioan antolaturiko kontzertua bai. Aurretik, euriegatik urtero moduan musikariei gorazarre egiten dien Santa Zezili bezperako kalejira bertan behera utzi behar izan zuten; baita ibilbide horretan zehar, musika eskolaren 40. urtemuga ospatzen hasteko "Egun da Santimiña" euskal abesti ezagunetan oinarrituta sortu dituzten bertsoak elkarrekin abesteko antolatua zuten hitzordua ere. Bai kalejira, baita elkarrekin abesteko deialdia ere ostegun honetara, azaroaren 28ra atzeratu dute:



Sutegiko saioari eutsi zioten.

Azaroak 28, osteguna

- 18:00 Santa Zeziliren omenez Euskal Herriko Musika Eskola guztiak bateratuta, kalejira egingo Usurbilgo kaleetan zehar, trikitixa-pandero eta haizezko zein perkusioko instrumentuekin batera.
- Ibilbidean zehar, Zumarte Musika Eskolaren 40. urtemugako ospakizunen hasiera Mikel Laboa plazan.

Txalaparta ikastaroa antolatu dute Aginagan

Aginagako San Praixku Guraso Elkarteak txalaparta ikastaroa antolatu du LH-ko haur eta helduentzat, nahiz eta HHkoek ere probatzeko aukera izango duten. Bizpahiru saio izango dira; momentuz, lehenengoa zehaztu dute, azaroaren 29rako, ostiralera-ko, 17:30-19:30 artean, Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean.

Guraso elkarteko bazkide helduek 7 euroren truke eta haurrek 5 euroren truke parte hartu ahalko dute; bazkide ez diren helduek 10 euroren truke eta haurrek 7 euroren truke.

Izen-ematea

Izena aurrez eman beharko da telefono zenbaki honetan: 695 723 192.

Informazio bilera, Biodonostiaren txostenaz

GuraSOsek eta Anerrekak informazio bilera deitu dute ostiralera-ko, azaroaren 29rako, 19:00-19:45 artean Sutegin, "usurbildar guztiei eragiten digun osasun egoera larri bati buruzko informazioa jasotzeko eta horren aurrean, herri bezala gure osasuna babesteko har ditzakegun neurri eta ekimenen inguruan hausnartzeko". Erraustegiak biztanle onasunean duen eraginaz Biodonostiak eginiko ikerlana izango dute hizpide. Hitzordu honen antolatzaileek aurreratu dutenez, "bertan mediku baten laguntzarekin orain arte argitaratu diren datu kezkarrien berri ematearekin batera, horren aurrean herri bezala gure osasuna babesteko har ditzakegun neurri eta ekimenak azalduko dira".

Handienetik txikienera

Ordina itzazu negutegiko arrosa hauek handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienerari 10.

GALDER

Hona hemen bi sagu karraskari sinpatiko: Galder eta Maider. Bakoitzak suduku bana du, baina bakarren batek hizkiak ezabatu dizkie (beharbada beste saguren batek jan ditu karraska). Orain zuri dagokizu bi sudukua behar den bezala osatzea. Goiko sudukua Galderrera da (G, A, L, D, E eta R hizkiak ditu), eta behekoa Maiderrera (M, A, I, D, E eta R). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

A	G	D	E	R	L
R	E	L	G	A	D
L	D	R	A	G	E
G	A	E	L	D	R
E	R	G	D	L	A
D	L	A	R	E	G

M	I	A	R	D	E
R	E	D	M	I	A
I	A	R	E	M	D
E	D	M	A	R	I
A	R	I	D	E	M
D	M	E	I	A	R

Gabonetako dominoa

Osatu lauki zuria dominoko zati hau zuzena izan dadin.

Zenbatu

Hemengo saguak erabat lotsagabeta daude, ezta? Hamelengo txirulariari deitu aurretik, zehazki zenbat diren jakin beharko genuke. Hortaz, zenbatu itzazu, mesedez. Eta, ondoren, koloreztatu irudi osoa, artista bikaina zara eta.

Mezu gordea

Eman irudifilo bakoitzari dagokion hizkia eta Imanol Urbietaren abesti polit bat agertuko zaizu. Hizki-marrakzi alfabetoa erabilgarri izango zaizu horretarako.

HIZKI-MARRAKZI ALFABETOA

Itzalak

Lotu zuhaitz bakoitzari bere itzala.

Bide batez, margotu zuhaitzak horiz, berdez, laranja, marroiz, gorriz...

'Plazan Bazan' 18-19 orrialdeetako denborapasen soluzioak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirutan klase par-

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

tikullarrak emateko. Ikasturte osorako konpromisoa: 647 742 588.

Andatza tabernan sukaldari bila gbiltza: 627 841 927

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularrak emateko. Telefono zenbakia: 647742588

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Paperak egunean ditudan neska bat naiz eta interna moduan edo orduka

zaintza lanak edo garbiketa lanak egiteko lan bila nabil. Interesatuak deitu hona: 607455413.

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. Telefono zenbakia: 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. Telefono zenbakia: 628 459 625

BESTELAKOAK

Ibilgailurako Reracro markako Zero.1 Bi haur aulki dauzkat salgai. 5 urte arte erabilgarriak, eta egoera onean. 125 euro bakoitzak. Harremanetarako: 653717186.

Giltza batzuku aurkitu nituen Troia beheko karretera eta trenbide artean. Udaltzainetan utzi ditut.

Hemengo aurtengo intxaurrek salgai. Telefono zenbakia: 943 671160.

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 28	DE ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Ostirala, 29	DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 30	DE ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Igandea, 01	DE ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 5
Astelehena, 02	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Astearte, 03	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Asteazkena, 04	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea. 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Osteguna, 05	KNIESE JAUREGUIL LEIRE San Francisco, 1. Lasarte-Oria / 943 36 65 67
Ostirala, 06	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Larunbata, 07	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 08	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte / 943 01 95 21

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Plaza Mañe 11 Flaquer, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

HILDAKOAK



Itziar Anabitarte Puy

Azaroaren 20an hil zen, 100 urterekin.



Maria Jesus Arruti

Santamaria
Azaroaren 19an hil zen, 90 urterekin.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Futbol Haranen

Azaroak 30, larunbata

- 16:00 Ohorezko jubenilak:

Usurbil FT-Lengokoak SD

18:15 Gorengoen mutilak:

Usurbil FT-Billabona KE

Abenduak 1, igandea

- 10:00 Infantil neskak:

Usurbil FT-Gure Txokoa KKE

- 10:00 Infantil neskak:

Usurbil FT B-Aiztondo

Pilota partidak

Azaroaren 28, osteguna, 18:30:

Infantilak 3. Mailan, eskuz

banaka (errendimentua):

- Pagazpe - Alde Zaharra

- Pagazpe - Eple

Azaroaren 29, ostirala, 17:45:

Infantilak 1. Mailan, eskuz

banaka (errendimentua):

- Pagazpe (M. Alejo)

- Oiarpe (Erauntzetamurgil)

Jubenilak 2. Mailan, Gipuzkoako

buruz burukoa:

- Pagazpe (Errasti)

- Behar Zana (Iparragirre)

Nagusiak 2. Mailan Gipuzkoako

buruz burukoa:

- Pagazpe (Santxo)

- Bergara (Zugasti)

Eskubaloia Oiardon

Azaroak 30, larunbata

- 09:45 Kadete neskak:

Cortes Usurbil KE-Larraioz ZKE

- 11:15 Kadete mutilak:

Usurbil KE A-Larraioz ZKE

- 13:00 Jubenil mutilak:

Usurbil KE-Urola EK A. Aranzadi

- 15:00 Jubenil neskak:

Usurbil KE-Deuko Izarra Elgoibar

- 16:45 Senior mutilak: Saizar

Usurbil KE-Escolapios A

- 18:30 Senior neskak:

Urbil-Usurbil KE-Kaialde

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 28

AGINAGA Dastaketa komentatua

Bizio sagardogilearekin dastaketa komentatua.

18:00 Eliza Zaharrear.

USURBIL Zumarteren 40. urtemugako ospakizuna

18:00 Santa Zeziliren omenez, kalejira. 18:30 Zumarteren 40. urtemugako ospakizunaren hasiera Mikel Laboa plazan.

KALEZAR Emakumeon Etxea: hitzaldia

Hitzaldia: "Urtebete greba feministatik. Eta orain zer?".

18:00 Emakumeon Etxear.

OSTIRALA 29

USURBIL Hitzaldia

GuraSOsek eta Anerrekak deituta. 19:00 Sutegin.

USURBIL Sareren mobilizazioa

20:00 Mikel Laboa plazan.

LARUNBATA 30

USURBIL Erle Eguna

09:00-14:00 Sutegin eta frontoian.

USURBIL Kantu-jira

12:00 Mikel Laboa plazan.

AGINAGA Euskararen Gala

Sarrerak: usurbilkultura.eus
22:00 Eliza Zaharrear.



"Ostirala iritsi da!" ikuskizun berria eskainiko dute igande honetan.

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore Oiardo kiroldegian

Pailazoen Txapas irakaslearen azken laneguna partekatuko dute, elkarrekin ikasitakoa ospatuz. Basoa, jolasak, eskulanak, kantuak, irriak eta bihurrikeriak ez dira faltako.

Igande honetan, eguerdian

"Ostirala iritsi da!" izeneko emanaldia eguerdiko 11:30ean hasiko da, Oiardo kiroldegian. Sarrera guztiak agortuta daude.

"Artea" antzezlanaren Aginagan

Artea hiru lagunaren arteko komedia da, Ramon Agirre, Joseba Apaolaza, Asier Hormaza aktoreek antzeztua. Igande honetan, arratsaldeko 18:00etan, Aginagako Eliza Zaharra.

"Gregoria", bakarrizketa umoretsua

Bea Egizabalek 'Gregoria' izeneko bakarrizketa eskainiko du igande honetan Zubietako elizan. Zubietako Lantzenek antolatuko du ekitaldia eta 18:00etan hasiko da. Sarrera, doan.

Ostiralean, Sareren mobilizazioa

Hileroko elkarretaratzea ostiral honetan egingo dute, iluntzeko 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Larunbatean, Erle Eguna

- 09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.
- 11:00-14:00 Azoka:
 - Salmenta postuak.
 - Erakusketak Sutegin.
 - Ezti dastaketa.
 - Sari-banaketa.

Igandean, Hurbilagoren Udazkeneko Azoka

- 11:00-14:30 Azoka:
 - Gaztainak eta sagardoan doan azokan erosketa bat eginda.
 - 11:30-14:30 Pultsera tailerra, Ziortzaren eskutik.
 - 13:00 650 Usurbil Bizi otarraren aurkezpena Hurbilagoren Udazkeneko Azokan. Otarraren erakusmahai bat jarriko da.

ARANKA BERRIKUNTZAK
 · Fatxadaren estaldurak · Estalkien berriztatzeak
 · Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
 · Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

ZENDOIA ENEA taberna
 Kale Nagusia 35, Usurbil

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Iñaki Iturgintza
 BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA · ZORU BERO-EMAILEA
 ITURGINTZA · ENERGIA BERRITAGARRIAK
 info@inakiturgintza.com · www.inakiturgintza.com
600 024 825

San Tomas lehiaketan parte hartzeko **deialdia**

Noaua!k baserritar guztiak
gonbidatu nahi ditu



Herritarrek sagardo eta babarrun lehiaketan parte hartu ahal izango dute. Parte hartzeko azken eguna abenduak 10



Abenduaren **sari** banaketa **15ean**

GIPUZKOA

Ekin.

Gipuzkoa oparoagoa izateko.

Zaindu.

Pertsona guztiak eta horien ingurukoak zaintzen dituen.

Bizi.

Ondo eta duin bizi daitezen.



GIPUZKOA
Foru Aldundia

UDAZKENEKO

AZOKA

USURBIL

11:30-14:30

PULTSERA TAILERRA

ZIORTZA GAZTE
ELKARTEAREN ESKUTIK

USURBILGO
FRONTOIAN

ABENDUAK 1
11:00 - 14:30

GAZTAINAK ETA
SAGARDOA DOAN

AZOKAN EROSKETA BAT EGINDA

13:00

650 USURBIL BIZI

USURBILGO EKOIZLEEN
PRODUKTUEKIN OSATUTAKO
GABONETAKO OTARRA

PARTE
HARTZAILEAK

USURBILDIK: LIZARDI LIBURUDENDA,
SLEEPY MIMOSA, IONE IRURETAGOIENA,
XÜKÂ ESKUZ EGINA, AMEBA, ZAPARRA,
IXABEL AGIRRESAROBÉ ARZALLUS.

GONBIDATUAK: AMAETABIOK, BIHURRI,
CIAOBELLAIDO, CREA, DILINDAN,
EM ZIRRIMARRA, ESKUZ ESKURA,
ESTHER DE DONOSTI, GIGIL, HEMENDIK
HARA, JOSÉ ETXABE, JUKIMA, KNOT,
LAUPITXIAK, MUMI HANDMADE
JEWELLERY, MXUK BASQUE, NAI BITXIAK,
NI NAIZ, ORGANIC.STUDIO, OSABI
NATURALA, PIINPIRIN,
R•BELDE, URLUMA.

LAGUNTZAILEAK

ANTOLATZAILEA